




Bitez
Eskolako
Liburutegiko
Bilduma
Sorta
laranja



**Nola prestatu ahozko
azalpen bat Bigarren
Hezkuntzako arlo guztietan**

ANA MARTÍNEZ MONGAY

 **Blitz** sorta laranja

.....

**Nola prestatu ahozko
azalpen bat Bigarren
Hezkuntzako arlo guztietan**

ARGITARATZAILEA
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

BILDUMAREN ARDURADUNA
Curriculum Diseinu eta Garapenerako U.T.a
EGILEA
Ana Martínez Mongay

DISEINUA
Asis Bastida

INPRIMAKETA
Gráficas Castuera

L.G. NA - 2.990/2004
ISBN 84 - 235 - 2709 - 3



**Nola prestatu ahozko
azalpen bat Bigarren
Hezkuntzako arlo guztietan**

ANA MARTÍNEZ MONGAY



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

*Nire esker on profesional eta pertsonalik
beroena adierazi nahi diet Joaquim Dolz
eta María Josep Cuencari, hainbeste irakatsi
eta hainbeste lagundu baitidate lan hau hobetzen.*

*María Victoria García Armendárizi, lehenbiziko
zirriborroa xehero eta arretaz irakurtzearen
lan zaila bere gain hartu zuelako.*

Edizio honetarako oharrak:

1. Jatorriz katalanez eta frantsesez zeuden liburuen itzulpenak egileak eginak dira. Ezeren hutsik edo faltarik aurkituz gero bertan, lerro hauen egileak du horren erantzunbeharra.
2. Aipamena egiterakoan egileen izena eta edizioaren urtea besterik ez da aipatzen; hori oinarri, irakurleak bukaerako bibliografia kontsultatzea dauka informazio gehiagorako.
3. 2.5. puntuko jarduerak itxuratzeko, Joaquim Dolz eta besteren *S'exprimer en français* liburua hartu dugu oinarri (4. bolumena).

AURKEZPENA

Gure ikasleek beren mailako helburu akademikoak iristeko izaten dituzten oztopoetan, adierazmen gaitasun eskasak izatea da handienetako bat. Horregatik, Hezkuntza Departamentuak helburu lehenetsizat hartu du Nafarroako ikasleek oinarritzko adierazmen gaitasunak bereganatu eta sendotzea, arlo guztietan egoki ikasteko ezinbestekoak.

Blitz liburutegiko *sagua* delako bildumak, *Blitz irakurtzearen alde* sail horiaren bidez, orientazioa eman nahi die arlo guztietako irakasleei ikasgelan gaitasun hori lantzeko.

Liburu honen bitartez sail berri bateko lehenbiziko zenbakia aurkezten dugu: sail laranja. Sail honek lagun egin nahi die irakasleei, jakin dezaten nola irakatsi beren ikasleei ahozko adierazmen egokia izaten eta hizkuntza formala egoki erabiltzen.


Lan honetan Ana Martínez Mongayek, irakasleen hizkuntza prestakuntzako adituak, hainbat jarduera aurkezten dizkigu ahozko adierazmena Bigarren Hezkuntzako curriculum arlo guztietan lantzeko.

Ahozko adierazmena irakasteak zenbateko garrantzia duen ikusarazteko, egileak diosku nola “herri guztiek, hala hizkuntza idatzia dutenek nola hizkuntza mintzatua beste adierazbiderik ez dutenek, mezuak, sentimenduak eta ikaskizunak transmititzen dituzte ahoz. Haurrek lehenbizi hizketan ikasten dute, eta hil arte ez zaie hizketan ahaztuko. Eskola gabekoenak ere gai dira mintzatu eta entzundakoa ulertzeko”.

Hortaz, bada, irakaskuntzaren eremuan arduraren bat daukagun guztiok lagun egin behar dugu eginkizun honetan, ez baitagokio soilik hizkuntza arloari, irakasle guztiei baizik eta hezkuntza komunitatearen eta gizartearen laguntza behar baitu.

Lerro hauetatik, bultza egin nahi diet Bigarren Hezkuntzako irakasleei segi dezaten lanean beren ikasleek irakurriaren ulermen ona eta ahozko zein idatzizko adierazmen egokia izan ditzaten. Horrek beren bitzta profesional eta pertsonaleko oztopoak gutxitu eta aukera gehiago emanen dizkie.

Luis Campoy Zueco
HEZKUNTZA KONTSEILARIA



Orrialdea

7

Sarrera

9

1. AHOZKO ADIERAZMENA IRAKASTEAREN GAINEKO
GOGOETA OROKORRAK

10

1.1 Hitz egitea eta entzutea Bigarren Hezkuntzan

11

1.2 Mintzamenaren eta idazmenaren arteko diferentziak

13

**1.3 Ahozko hizkuntza formala ikasgeletan nola irakatsi:
osotarako ikasketa**

15

**1.4 Ikasketan zer garrantzia duen ahozkotasunak:
ahozko genero formalak**

17

1.5 Azalpen testuak eskolaren testuinguruan

18

1.6 Ahozko azalpena ezagutza arloetan

20

1.7 Testuak eta ikasketa

27

**1.8 Ahozko azalpenaren ezaugarriak testuaren
propietateen alderako**

33

2. AHOZKO AZALPENERAKO SEKUENTZIA BATEN ADIBIDEA

34

**2.1 Sekuentzia, ikas- irakas-prozesua
planifikatzeko tresna**

36

2.2 Sekuentziaren egitura: esplikazio eskema

36

2.3 Modulu desberdinak

41

2.4 Ahozko azalpen bat nola programatu

44

2.5 Jardueren sekuentzia

63

Bibliografia

SARRERA

Herri guztiek, hala hizkuntza idatzia dutenek nola hizkuntza mintzatu beste adierazbiderik ez dutenek, mezuak, sentimenduak eta ikaskizunak transmititzen dituzte ahoz. Haurrek lehenbizi hizketan ikasten dute, eta hil arte ez zaie hizketan ahaztuko. Eskola gabekoenak ere gai dira mintzatu eta ulertzeko.

Hezkuntzak, ordea, oso esku-hartze urria du gai horretan, eta programa ofiziale-tan oso arreta gutxi ematen zaio ahozko adierazmenari. Eta hala ere, Eskola litzateke, dudarik gabe, ikasleen mintzamina lantzeko toki aproposena, han izan ezik ez baitute bestela inon halako prestakuntzarik hartuko. Prestakuntza horren helburua da ahoz egoki adierazten ikastea hainbat komunikazio egoeratan, bai formalak eta bai informalak, eta beste hainbat eremutan: pertsonalak izan, jendaurrekoak, akademikoak ala lanbidekoak.

Gizarte demokratiko batean herritarrak maiz gertatzen dira hitza testuinguru formaletan erabili beharrean, eta hartarako eskubidea izaten dute. Baina horrez gain, hizkuntza guztietan ezagupenak maiz asko ahoz transmititzen dira: ahozko esplikazioa –ez da nahasi behar esaldi batzuk buruz edo irakurriz ozenki errepikatzearekin- maila goreneko hizkuntza trebetasuntzat hartzen da, zeren jakintzaren edozein arlotan horixe izaten da pertsona batek bere arloko ezagupenak ongi ikasi ote dituen igartzeko bidea: ezagupen horiek besteri egoki esplikatzeko gauza izatea.

Hainbat herritako curriculumak, eta bai hezkuntzaren ardura duten Europar Erakundeak ere, hasiak dira kezka hori bereganatzen; hala ematen du aditzera Pisa proiektuak, berriki abiatuak. Gure komunitatean, otsailaren 22ko 67/1993 Foru Dekretuak (4. artikuluan aldatu den moduan), kezka hori jasotzen du, honako hau jasotzen baitu Bigarren hezkuntzako helburu orokorren artean:

Egokitasun, beregaintasun eta sortzailetasunez ulertu eta ekoiztea ahozko zein idatzizko mezuak, gaztelaniaz eta bai, Autonomi Elkar-teak beste hizkuntza bat badu bere, hartan ere, eta gogoeta egitea hizkuntzaren erabilerak barne hartzen dituen prozesuen gainean eta hizkuntzak norbere pentsamenduak antolatze-ko ematen duen laguntzaren gainean.

Gainera, Nafarroako Foru Komunitatean Bigarren Hezkuntzako arlo guztietako curriculum proposamenetan bultzatzen egiten zaio ahozko eta idatzizko adierazmena lantzeari, eta hala dago jasota irakasgai bakoitzaren jarraibideetan eta ebaluazio irizpideetan.

Kezka honek, bada, Bigarren Hezkuntzako irakasle guztiena behar du, hizkuntza-irakasgai hutsa gainditu eta gure ikasleen osotarako ikasketari eragiten baitio.

Bigarren Hezkuntzako arlo guztietako irakasleei laguntza emateko, bada, ahozko adierazmena den ezezagun handi horri hurbiltzeko, lan honetan gogoeta bat proposatzen da; aurrena ahozkotasunaz eta ahozkotasunak idazketarekin duen loturaz, eta ondoren ahozko adierazmen formala geletan irakastearen problemaz.

Irakasleek ikas-irakas prozesuaren gainean izan dezaketen esku-hartzea, neurri handi batean horren mende baitago: zenbateraino dauden trebatuta “ahozko erregistro formala” deitu horretako testuak erabiltzen. Gure lan hau genero horietako batean zentratuko dugu: ahozko adierazmena, hezkuntzaren arloan ohikoenetakoa eta errentagarrienetako baita. Ahozko adierazmenari hurbiltzeko, beti ere testuaren ikuspuntutik eta hondarrerainoko azterketa egiteko asmorik gabe, zenbait kontzeptu oinarritzko argituko ditugu, testuarekin eta bere propietateekin lotuta daudenak.

Bukatzeko, sekuentzia didaktiko bat emanen dugu adibidetako, ahozko adierazmena ezagutza-arlo guztietatik modu koherentean lantzeko bide ematen duena. Adibidea, hala nola berarekin datozen tresnen deskripzioa, Ginebrako eskolaren materialetan oinarrituak daude. (2001)



1.

**Ahozko adierazmena
irakastearen gaineko
gogoeta orokorrak**

I.1 Hitz egitea eta entzutea Bigarren Hezkuntzan

Gaur egun, Bigarren Hezkuntzan hitz egin eta entzuteak bi gauza esan nahi ditu: batetik, informazioa ulertu eta hautatzeko gauza izatea, eta bestetik nork bere mezua aurreratu, buruz ikasi, planifikatu, ekoiztu eta, igortzen ari dela, erregulatu eta zuzentzeko gauza izatea. Definizio honen lehenbiziko parteak arlo guztiak barne hartzen ditu, ikas prozesuko eta ezagutzak bereganatzeko hainbat operazio mentali erasaten baitio. Bigarren parteak, berriz, hizkuntza gaitasunari dagokio, lagundu egiten baitu adierazmena hobetzen, hizkuntza arloen helburu nagusia baita. Batera nahiz bestera, ikasketa arlo-anitza da. Bi gaitasunok, ahozko adierazmena eta ulermena, garatu beharra, bada, arlo guztietan gertatzen da.

Baina horrez gain, ahozko adierazmena eta ulermena Bigarren Hezkuntzako geletan maiz egiten diren jarduerak dira: modu esplizituan irakasten ez badira ere, etengabe egiten dira.

Har dezagun Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gela egoera bat: irakasleak gai bat ahoz esplikatzen eta ikasleak entzuten egoten dira eskola ordu horren parte handi batean. Ez irakasleak ez ikasleak ez diote momentu hartan behar den garrantzia ematen hezkuntza esperientzia horri, zergatik eta hain zuzen hain maiz izaten dutelako esperientzia, hainbateraino non esangura osoa galdu duen haientzat. Eguneroko jarduera honetan, bada, gertatzen da esku-hartu beharra ikasleentzako entzunaren ulermena eta adierazmena hobetzeko, kasuko ezagutza arloko edukiei dagokienez.

Irakasgai bakoitzak bere hizkera berariazkoa du, bere adierazmodu eta esplikara bereziak, hiztegiak ez ezik, hizkuntza formetan ere bai eta bai esatera, diskurtsu mota eta esaldien egituretan ere. Horiek hizkuntza hutseko alderdiak dira, baina hala ere oso kontuan hartu beharrik aurrea hartzeko ikasleek Matematika, Zientzia, Gizarte eta abarretan topatuko dituzten zailtasunei.

Irakasleok, hizkuntza irakasleok ere bai, ahozko hizkuntzaren irakaskuntza programatu eta harekin izanen diren zailtasunei aurrez antz emateko izaten ditugun hut-sunerik handienetako bat horretan da: ahozko hizkuntza ez dela inoiz hartu objektu autonomotzat, diskurtsu idatzia islatzen duen forma idealtzat baizik, edo, erabat

kontrara, pertsonaren testuinguru linguistikoarekin zerikusia duen adierazpen espontanea, hizkuntza idatziari kontrajarria.

Arrazoi horietako bat edo besteagatik, eskoletan trebetasun hau ezer gutxitan eduki izan da orain arte, gaitzetsi ere bai, idaztearen alderako.

Eta zailtasun hori are handiagotu egiten da hizkuntza mintzaturia hain gauza aienakorra izateagatik. Ahozko hizkuntza fisikoki diferentea da idatzitik: testu idatziak erraz manipulatu, berrirakurri, errebisatu, ebaluatu egiten dira; testu mintzatuak, berriz, ahotik atera orduko aienatu dira. Hizkuntza mintzatuaren ilauntasun horrek, dudarik gabe, pisua izan du mintzamenaren ikaskuntza antolatu, ohartu eta ebaluagarritik kentzeko.

1.2 Mintzamenaren eta idazmenaren arteko diferentziak

Josep M. Castellák (2001), ahozko eta idatzizko generoen edo erregistroen arteko diferentziak aztertzen ari dela, continuum bat ikusten du batetik bestera, bien artean haustura edo erabateko separaziorik ez dela. Gradazio horren barnean sartzen da, beste genero batzuen artean, arlo bateko curriculumari dagozkion gaiak ahoz azaltzea, kasu horretan ez baitago ahozotasun espontaneorik eta ez idatzi hutseko jardunik ere; jeneralean euskarria idatzia izaten da baina partzialki behintzat irakur daiteke.

Hurrengo eskema honetan continuum hori aurkezten dugu. Eskolako ahozko testuak, ageri denez, *ahozko formala* deitu eremuan kokatzen dira:



Hala ere, hiztunentzat ahozketasuna eta idazmena erabateko objektu diferente gisa atzematen dira. Dikotomia horren inplikazio oinarrizkoen artean hauek aipa dezazkegu:

Idazmena:

1. Produkzio prozesua produktuaren aurrekoa da.
2. Testu idatzia iraunkorra da.
3. Testu idatzia sakon aztertzeke erraza da.
4. Azken buruko produktua artez zuzentzen da.

Ahozko adierazmena:

1. Prozesua eta emaitza aldi berean gertatzen dira.
2. Testu idatzia aienakorra da.
3. Sakon aztertu nahi izanez gero, bide bakarra da aurrez grabatu eta transkribatzea da.
4. Grabatuta eduki ezean zuzenketa okerra izan daiteke¹.

Ezaugarri horiei eta bertan erabili diren terminoei hobeki antz emateko, Uri Ruiz Bikandik (2000; 120) bereizkuntza interesgarria egiten du testuaren eta diskurtsuaren artean: “*diskurtsua eta testua* terminoen erabilera autorez autore aldatzen da (...) Testu honetan diskurtsua jardueraren esanguran erabiltzen da, emaitza edo ekoizpenez testua daukan prozesuaren esanguran”. Interpretazio honen arabera *testua* aurreko ezaugarriek definitzen duten produktua edo emaitza izango litzateke, eta *diskurtsua*, berriz, produkzio prozesua.

Josep M.^a Castellák (2001) hainbat alderdi aurkezten ditu ahozko diskurtsua eta idatzizkoa bereizteko; berak “testuaren produzitze eta jasotze kondizio fisikoak eta egoerakoak” deitzen die:

- Espontaneitatea/prestalana (plangitza/plangintza eza).
- Monokudeaketa/polikudeaketa (edo diskurtsu monologatua /diskurtsu dialogatua).
- Norabide bakarra/ norabide anitz (hitza hartzeko txandak egon daitezke).
- Espazioan aldi berean gertatzen dira/ez dira.
- Denboran aldi berean gertatzen dira / ez dira (edo denbora errealean jasotzen dira /berandugo jasotzen dira). (50. orr).

Diferentzia hauek agertzera ematen dute ahozko erregistro espontaneo eta idatzizko erregistro planifikatua arestian aipatu continuum horren bi muturretan

¹ Joaquim Dolz irakasleak esaten duenez, ahozko adierazmena zuzentzeak irakaslearentzat duen zailtasuna honetan datza: ahozko diskurtsu bat gertatzen ari dela zuzentzeak komunikazioa tratatzen duela. Beraz, komeni da irakasleak aurretik, igorpena hasi baino lehen erregulatzea prozesua, eta bai ondoren ere, grabazio bat erabiliz.

daudela. Bien artean, berriz, ahozko hizkuntza formala eta modu espontaneoan idatzitako hizkuntza (nota pertsonalak, idazketa automatikoa...), edo ahoz gauzatzen den hizkuntza idatzi dialogatua (antzertia, zinea...). Aldakortasun honek ere sendotu egiten du continuum baten ideia. Ahozko hizkuntza formalaren kasuan eta, zehazkiago, eskolan ahozko azalpena egiten denean, hemen jorratu behar dugun kasua baita, plangintza eta diskurtsu monologatua izatea testu idatzi formalarekin komun dituen ezaugarriak dira.

Ahozko azalpenaren konplexutasun itxurazko hau ez litzateke berez oztopotzat hartu behar ikasgelan erabiltzeko edozein ezagutza arlotan, helburua ez baita hizkuntza mintzatuaren forma guztiak aztertzea ikasleek ere haiek aztertzen ikas dezaten; helburua da ikasleek, eskola testuinguru formal batean, ahalik eta estrategia gehien erabiltzeko gauza izan daitezen elkarrekin komunikatu eta lehendik ikasitako informazioa jaso eta igortzeko. Helburu hori iristen bada, asko erraztuko da gero ezagutza berariazkoen ikasketa.

1.3

Ahozko hizkuntza formala ikasgeletan nola irakatsi: osotarako ikasketa


Ahozko adierazmen formala ikasgelan lantzea, beraz, askoz osoagoko ikasketa da maizenik egin ohi diren ariketak baino (testuliburua irakurri, irakaslearen esplikazioak entzun, galderei erantzun, ariketak eta laburpenak egin eta abar), horiek bana-banaka egiten baitira, osoagoko ikasketa batek behar dituen estrategiak abian jarri gabe. Konplexutasun hori dela kausa, hain zuzen, irakasleek (bai eta hizkuntza arloetako irakasleek ere) maiz muzin egin izan diote ahozkotasuna irakasteari, eta bai, esan bezala, hizkuntza mintzatu formalaren kanala eta erregistroa behar bezala ez ezagutzeagatik ere.

Hizkuntza mintzatu erregistro formalean lantzen denean, sarreran aipatzen genituen eta curriculum-proposamen indardunetan ageri diren trebetasun guztiak garatzen dira (mezu idatziak eta ahozkoak ulertu eta produzitzea), ahozko adierazmena formalak, izan ere, idazketari eta irakurketari lotuta egoteaz gain, ahozko adierazmena eta ulermena ere beharrezko baititu.

Grafikoan ageri denez, trebetasun horiek denak elkarren harremanetan jartzen dira ahozko genero formalen produkzio prozesua abiatzen denean: entzutea, hitz

.....

egitea eta elkar eragitea dira ahozko testu formalak ulertu eta produzitzeko gaitasuna garatzeko behar diren trebetasunak; baina horrez gain, ahozko testu formal bat produzitzeko, ezinbestekoa da aurrez irakurtzea, dokumentatzeko, eta ahoz emanen den hitzaldia idaztea, erregistro formalean ariko baikara; eta azkenik, bai idazketa eta bai irakurketa, ahozko trebetasunak bezala, elkarren harremanetan egoten dira etengabe, ulermenik gabe ez baita egoten adierazmenik, eta alderantziz.



Osotarako esku-hartze modu honen helburua komunikazioa da, bere dimentsio guztietan. Hain zuzen ere horrexek eragiten die atzera irakasle askori ikaste mota honen aurrean: komunikazioko dimentsio guztiak inplikatu egotean zailagoa eta kontrolagaitzagoa iruditzen zaie, ohituraz praktikatzen dituzten jardura bakun eta ikasketa partzialak baino. Ahozko adierazmena programatu eta garatzea, ordea, onura handia ekartzen dio edozein arlotako ezagupenak bereganatzeko lanari, berariazko testuetara hurbiltzeko lagungarri den partez. Ikasketa honetan, izan ere, hezkuntzako hiru ardatz funtsezko garatzen dira:

1. Generoak: testu generoetara hurbiltzeak, eta zehazkiago ahozko adierazmena bezalako ahozko genero formaletara hurbiltzeak laguntza ematen du arlo bakoitzeko berariazko testuak barrentzeko, eta beraz genero hau ezagutzeak zailtasunei aurre hartu eta errazago gainditzea ahalbidetzen du.
2. Ahozko elkarreragina: hainbat egoera formaletan hitz egitea eta elkarreragitea curriculumetik garatu beharreko trebetasunak dira, eskolak, instituzioa den partez, baitu biderik errazena egoera formal horietan esku hartzeko, eta eskolan ikasi behar baitituzte egoera horiei gain ematen.

3. Hizkuntza idatzia: Idaztea eta irakurtzea funtsezko trebetasunak dira hezkuntza garapenean eta ikasketak arrakasta izateko ezinbestekoak. Biek berezko duten formalizazio mailak hainbat zailtasun dakartza berekin, ikasleek etengabe ebatzi behar dituztenak, askotan laguntzarik gabe. Ikasketa, beraz, egoera desberdin askotan sarturik egon behar du curriculum guztietan, ikasgai hori azkenean ohiko izan dadin eta ez dezan beldurrik sortu.

Irakasleei atzera eragiten dien beste problema bat da ahozko adierazmena ebaluatzen zaila dela, korapilatsua delako eta denbora gehiago eskatzen duelako. Horregatik zabal dabil ahozko adierazmena (hitzaldiak, debateak, elkarrizketak eta abar) eskolan denborapasa egiteko modu bat delako ustea, eta horretarako itxura batera inportantzia gehiagokoak diren beste gauza batzuk baztertu behar direla, nola baita testuliburua irakurtzea. Jakinaren gainean irakasten ez diren gauzak ez dira ikasten eta anekdota bihurtzen dira.

Halako ikasketa jarduerak oso noizean behin egiten badira ere, dudarik ez da balio handikoak direla gizabanakoaren beregaintasuna garatzeko gizarte demokratiko batean; izan ere, Grezia Zaharraz geroztik hala izan da beti, Montse Vilàk (2003: 46) aditzera ematen duen bezala: “orduko erretorikaren helburua zen entzuleak kontentitzeko egokiena zen moduan hitz egiten irakastea, ideiak argi eta eragingarri azaltzeko.” Helburu horiek gaur egun balio handia hartu dute eta arlo guztietan ezinbestekotzat hartzen dira. Halatan, bada, ikaskizun horietako batzuk hautatu eta lehenetsun arabera hurrenkatzea arlo guztien programazioetan, aportazio handia eginen dio ikasleen osotarako garapenari. Eta hainbesteko garrantzia duelarik, curriculumetan osagai gisa sartzeak dudarik gabe bultzatzea egingo die irakasleei era sistematikoa hurbil daitezen gai honetara eta ondoren garapen didaktikoa egin dezaten.

1.4

Ikasketan zer garrantzia duen ahozkotasanak: ahozko genero formalak

Programazioetan ahozkotasuna irakasteko jarrita dagoen denbora, gehiena irakurketarekin lotuta dagoen ahozkotasuna lantzen ematen da: testuak ozenki irakurtzea, elkarrizketa edo teatro lan bat antzeztea, laburpen bat irakurtzea, kontzeptu bat azaltzea eta abar. Ezta hizkuntza klaseetan ere ez da berariaz irakasten ahozko adierazmena, salbu eta atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan, hor bai, ikasleek denetarik egoeretan komunikatu behar izaten baitute delako hizkuntza ikasteko.

.....

Hizkuntza mintzatua hain gutxitan izan delarik gelako ikasgai, zailtasunak ugaltu dira, nekez irakasten baita sistematizatu gabeko irakasgai bat. Maila bereko beste trebetasun batzuk, berriz, nola diren, adibidez, idazmena eta irakurriaren ulermena, erabat sistematizaturik daude. Eta ahozko testuekin gauza bera gertatzen da: honelako testuen ikerketa eta azterketak askoz gutxiago dira testu idatzien gainekoak baino.

Gainera, gizarte eta eskola bizitzan izaten diren erregistro eta testu moten aberastasuna ez jakitearen ondorioz, zenbaitek uste dute ahozko ahaztasuna eta espontaneitatea eta hizkuntza zabarra bat direla, eta beraz hizkuntza mota hori ezin dela eskolan irakatsi. Idatzizko euskarrian zeuden ahozko adierazpenak besterik ez da aintzat hartu, eta orduan ere, ez trebetasunak garatzeko, baizik eta buruz ikasi, egoki ahoskatuz irakurri, doinu egokia eman eta halako gauzak lantzeko.

Zorionez azken urteetan asko ugaltu da ahozko genero formalen defentsa eskolan; genero horiek, idatzian oin hartzen badute ere, idatzitik erabat bereizten dituzten ezaugarriak baitituzte. Demostratu da ahozko ahaztasuna sistematikoki irakats daitekeela ikasgelan eta ahozko genero formal batzuk garrantzi handikoak direla eskolaren testuinguruan zenbait trebetasun gararazteko. Hainbat ikerketak irakasleei eskuetaratu dizkien tresnak hizkuntza tresnak dira funtsean; nahiz eta diziplina arteko ikuspegitik egindako proposamen batzuk badauden (Schnewly, De Pietro, Dolz eta beste, 1997).

Proposamen horietan, helburua hizkuntza jarduera da, komunikazio egoera bati dagokion genero batean. Komunikazio egoerak hainbat eremutan gertatzen dira: eskola, besteak beste, ikasgela, laboratoriora, patioa, kiroldegia, liburutegia, informatika gela eta abar bezalako tokietan. Horregatik ahozko adierazmen formala irakastea egoeraren parametroak finkatzen dituen ikasgela proiektu baten barrenean mamitzen da.

Ahozko ahaztasuna irakastea programatzeko kontuan hartu behar diren alderdien artean, Joaquim Dolz-ek eta Bernard Schnewly-k (1998) hauek aipatzen dituzte:

1. Lantzen den generoari dagozkion ahozko testuen corpora itxuratzea.
2. Ahozko testuak osorik nahiz zatika entzutea.
3. Ahozko testuak edo testu zatiak modu sinpletuan produzitzeko ariketak.
4. Norbere produkzioak edo besterenak grabatu, entzun eta aztertzea.

.....

Proposamen honetan, ikasleen produkzioak grabatu, entzun eta aztertzea lagungarri izanen da jarduera ebaluatzeko, ahozkoasuna irakasteak dituen zailtasunetako bat baita, izan ere, eta eredutzat erabiliko diren ahozko testuak biltzea erraztu egiten die irakasleei gauzak esplikatzen lana, zeren komunikazio egoera begien aurreratzeko biziki errazten du ikasleek hartaz izanen duten irudikapena.

1.5

Azalpen testuak eskolaren testuinguruan

Eskolako hizkuntzak berezko duen tresnatasunak garrantzi handia hartzen du azalpenetako testuan. Hizkuntza, izan ere, garbiki ezagupenen transmisiobide da eskolaren testuinguruan, informazioa azalpen moduan antolatzen duen euskarri bat bitarte delarik.

Hala ere, ikasleek topatzen dituzten azalpenetako testuak ez dira beti behar bezain argiak eta ez daude ongi idatziak. Horregatik beragatik ongi ezagutu behar dira halako testuak, zeren eta ulermenerako izan daitezkeen zailtasunei aurrea hartzea eta haien egiturari antz ematea, diskurtsua ahozkoa izan nahiz idatzizkoa izan, lagungarri izanen da betiere edukiaren interpretazioa hobetzeko, testuen egitura eta adierazpenean izan daitezkeen hutsak gaindituz.

Ahozko azalpenarekin gauza bera gertatzen da eta horregatik hain zuzen da esanguratsua eskolaren testuinguruan, zeren eskolan sortzen diren egoeretan izaten du ikasleak aukera gehien ahozko azalpen onak entzun eta produzitzeko. Izan ere eskola da genero akademiko horren sorlekua, beste genero ahozko batzuk ez bezala, nola diren eztabaida, elkarriketa, ahozko kontakera, ikasgelako batzarra, horiek bestetan sortu edo beste nonbait garatu baitira.

Ahozko azalpena izan ere generorik egokiena da ezagupenak transmititzeko, eta arlo guztietan erabiltzen da. Irakasle gehienek erabili ohi dute genero hau gaiak emateko, eta baita ikasleek ere batzuetan, baina modu sistematikoan programatu gabe eta informazioaren garraibide den egitura gisa irakatsi gabe.

Bestetik, ahozko azalpena bai eskolan eta bai beste testuinguru batzuetan gertatzen delarik, horrek askotariko erabilera-aukerak eta aberastasuna ematen dizkio, zeinari esker irakaskuntza egoerak dibertsifikatzeko balio baitu, bariatuagoak eta

.....

ikasleentzat baliagarriagoak izan daitezzen. Ildo horretatik, ahozko azalpen bat produzitzerakoan hainbat aukera daude igorle kopuruari dagokionez, bat baino gehiago izan baitaitezke. Ezaugarri honi esker bi ikasle edo gehiagoren artean egin daiteke azalpen bat ikasgelan, eta horrela elkarlanean ikasketa bultzatuko dugu eta bai ebaluazioa erraztuko ere, denbora gutxiago beharko baita azalpen guztiak bakarka ebaluatzeko behar litzakeena baino.

Azalpenaren gaiari dagokionez, gertaera bat izan daiteke, fenomeno bat, datu analisi bat... baina baita prozesu bat, objektu baten deskripzioa eta jardunbidea, eta abar.

Hori guztia eta horrez gain komunikazio gaitasunen garapena direla medio, ahozko azalpena, azalpenezko testuen artean aberatsenetakoa eta ahalmen handienetakoa da, bidea ematen baitu komunikazio egoerak eta gaiak aldarazteko eskolaren eremutik atera gabe, azken buruko asmoari eta funtzioari eutsiz (ezagupenen transmisioa).

Horrez gain, genero honek arlo guztiek komun dituzten helburuak iristen ditu modu ezin argiagoan; honela aipatzen dituzte Joaquim Dolz-ek eta Bernard Schnewly-k helburu horietako batzuk:

- Komunikazio egoerari eta bere osagaiei antz ematea.
- Askotariko informazio iturriak hautatu eta erabiltzea.
- Ideiak planifikatu, antolatu eta hierarkizatzea.
- Azaldutako ideiak adibidez argitu, ilustratu, eta esplikatzea.
- Ulermen zailtasunei aurrea hartu, eta birformulazioak erabiltzea (parafraasiak eta definizioak).
- Diskurtsua egituratzea.
- Mintzoa, jarrera eta jestuak diskurtsuarekin bat erabiltzea.
- Notak hartu eta irakurtzea.

1.6

Ahozko azalpena ezagutza arloetan

Ahozko azalpena, aztertu behar dugun diskurtsu generoa, lau aldagai uztarturik sortzen da:

- Erregistro formala.
- Kanala: ahozkoa.
- Testu mota: azalpenezkoa.
- Eremua: Hezkuntza.

Ahozko azalpenaren praktika, eskolako ikasketetan, osoenetakoa da, zeren arlo guztietatik ikasitakoa ahoz azaltzeak ahalegin handiagoa eskatzen du galdera zehatzei erantzun beharrak eskatzen duena baino. Ikasitakoa esplizitatu behar dugunean, hau da, besteri azaltzen diogunean zer ikasi dugun, hainbat gaitasun jartzen dira abian, hizkuntzari ez ezik beste alderdi askori dagozkionak: pentsamenduaren antolaketa, kontzentrazioa, testuen plangintza, adibideak bilatzea, kontzeptualizazioa, informazioaren hautapena, gaia eta baliabide hizkuntzazkoak eta hizkuntzaz bestekoak egoki barrenduta edukitzea.

Ikasle batek arlo bateko curriculumaren gainean ahozko azalpen formala egiten duenean, gaia prestatzeko eskatzen dion informazio prozesatze eta transmititze lanak nahitaezkoa du ikasleak aurretik entzunda edukitzea bere prestatzeko eredu izan dituen ahozko azalpenak, eta bai bere ikaskideenak ere, askotariko testuak irakurri-ta edukitzea, gehienbat informaziozkoak, lortutako informazioa idatzi eta notatzea, informazio hori aurretiazko azalpenezko testu batean antolatzea (geroago ahoratuko duena) eta testu hori eta testua azaltzeko behar dituen baliabideak ikasi.

Dolz eta Schnewly irakasleek (1998) ezin argiroago laburtzen dute zer abantaila dakartzan ahozko azalpena ikasgelan irakasbidetzat erabiltzeko:

Azalpena hainbat eduki transmititzeko tresna ezin egokiagoa da. Bai ikasle hartzaileentzat nola azalpena egiten duen ikaslearentzat; azalpena bientzat da edukiak ikasteko tresna, eta bai ere egiturak ere, testu generoak ematen dion esparruari esker. Askotariko informazio iturriak ustiatzea, informazioa gure asmo-ko helburu eta gaiaren arabera hautatzea eta ahozko azalpenaren oinarri izan den bilbe bat osatzea dira esku-hartze didaktikoaren lehenbiziko maila, edukiari hertsiki lotua. (141. orr.).

.....

1.7 Testuak eta ikasketa

Ezagutza arlo guztietan, ikasgelaren kudeaketa testuen inguruan antolatua egoten da. Testua zer den finkatzeko, E. Bernárdez-en (1982) definizioa hartzen dugu aintzat, testu hizkuntzalaritzaren barrenean egina: testua, horren arabera, definizioz teoria (eredu) baten barrenean eraikitako objektu abstraktua da:

Testua oinarritzko komunikazio unitatea da, gizakiaren hitz jardueraren ondoriozkoa; beti gizarterakoa da eta semantikaz itxia, eta bai azalez eta bai sakonean koherentzia du, hiztunak asmo hori baitu, izan ere: testu oso bat sortzeko asmo komunikatiboa baitu eta bi arau multzoren bidez antolatzen baitu testua: testuaren mailako arauak, batetik, eta hizkuntza sistemarenak, bestetik.

Testuak aztertu, sailkatu eta taldekatzeko, beste kontzeptu bat badago kontuan hartu beharra: “diskurtsu generoak”, hain zuzen, Joaquim Dolz-ek eta Bernard Schneuwly-k (1997; 84) honela definitu dutena: “Historikoki eraikitako hizkuntza jardunak” (...). *Hizkuntza jardunak* dira gizarte taldeek historian zehar elementuak metatuz eraikitako ondasunak. Elkar-eragitearen ikuspuntutik,aldi berean gizarte elkarregitearen isla eta tresna nagusia dira. Komunikazio bitarteko horiek bitarte direla, generoen itxuran mamitzen direnak, gizarteko esangurak eraikiz joaten dira”.

Azken definizio hori osatzeko, jakin behar da generoek hainbat funtziotarako balio dutela, eta funtzio horiek zenbait alderdi tipologiko jakinetara lotuta daudela (konstatzea, deskribatzea, azaltzea, argudiatzea...) eta azterlanerako taldekatu behar direnean kontuan hartu behar dela gizartean zein komunikazio arlo dituzten eta zein hizkuntza gaitasun nagusi eskatzen dituzten. Hiru parametro horien arabera, Joaquim Dolz-ek eta Bernard Schneuwly-k (1997; 90-91) generoak eta beraz testuak bost taldetan banatzea proposatzen dute, honela:

Gizarteko komunikazio eremuak
ALDERDI TIPOLOGIKOAK
Hizkuntza gaitasun nagusiak

Literatura kultura

KONTATZEA

Ekintzaren imitazioa,
 korapiloaren bidez,
 egi-antzaren barrenean

Ahozko eta idatzizko generoen adibideak

- Ipuin miragarria
- Fabula
- Abenturazko kontaera
- Zientzia-fikziozko kontaera
- Misteriozko kontaera
- Kontaera mitikoa
- Sketch edo istorio harrigarria
- Biografia nobelatua
- Eleberria
- Eleberri historikoa
- Albiste fantastikoa
- Ipuin parodiatua
- Igarkizuna
- Haur-kanta
- ...

*Giza ekintzaren dokumentazioa
 eta memorizazioa*

KONTATZEA

Diskurtsuaren bidez,
 bizitako esperientziak,
 denboran kokatuak, irudikatzea

- Bizitza kontaerak
- Bidaia kontaerak
- Egunkari intimoak
- Testigantza
- Pasadizoa
- Autobiografia
- Curriculum vitae
- ...
- Gertaerak
- Erreportajea
- Munduko kronika
- Kirol kronika
- ...
- Historikoa
- Kontaera historikoa
- Ohar biografikoa
- Biografia
- ...

.....

<p><i>Gizarte problema gatazkatsuen eztabaida</i></p> <p>ARGUDIATZEA</p> <p>Iritzi baten sendotzea, errefutazioa eta negoziazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Iritzi testua ■ Argudiozko elkarrizketa ■ Irakurlearen karta ■ Erreklamazio karta ■ Eskaera karta ■ Eztabaida informala ■ Debate moderatua ■ Editoriala ■ Helegitea ■ Legezko errekerimendua ■ Saiakera ■ ...
<p><i>Jakingaiak transmititu eta eraikitzea</i></p> <p>AZALTZEA</p> <p>Hainbat jakingai mota testu bidez aurkeztea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Azalpenzko testua ■ Hitzaldia ■ Entziklopediako artikulua ■ Aditu batekiko elkarrizketa ■ Esplikaziozko testua ■ Oharrak hartzea ■ Azalpenzko eta esplikaziozko testuen laburpena egitea ■ Txosten zientifikoa ■ Esperientzia baten erreseina ■ ...
<p><i>Jarraibideak eta aginduak</i></p> <p>EKINTZAK DESKRIBATZEA</p> <p>Portaeren erregulazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ■ Montatze jarraibideak ■ Errezetak ■ Erregelamentua ■ Joko arauak ■ Erabiltzeko jarraibideak ■ Denetarikoa aginduak ■ Aurreikuspenzko testuak ■ ...

Ageri denez, genero desberdin asko daude eta komunikazio gizarte arlo guztietara hedatzen dira. Hezkuntzaren testuinguruan, arlo horiek eta berekin dakartzaten hizkuntza trebetasun nagusiak, generoetan gauzatzen dira. Hori ardatz hartuta, bada, gai izanen gara diskurtsu-ikasketa biribilka programatzeko eta komunikazio egoerak bariatzeko, arlo guztietan hainbat motako diskurtsu-genero ahozko nahiz idatzizkoak irakurriz, idatziz, hitz eginez edo entzunez ikasten baitira gauzak.

lido horretatik, arlo guztietan zenbait komunikazio egoerak, berariazko eduki batzuk ikastea ez ezik beste helburu hau ere izaten dute: eskolatzeko osoari dagozkion gaitasunak garatzea, ikasleen komunikazio gaitasunaren ingurukoak. Hizkuntzaren erabilaldi bakoitza berariazko egoera baten testuinguruan gertatzen da, ezagutza arlo desberdinen barrenean, arlo horiek ekintza eremu edo interes gunetzat harturik. *Hizkuntzetarako erreferentzigune europar komuna: ikasketa, irakaskuntza ebaluazioa delakoan (2002;49)* aditzera ematen den bezala, “Ikasleak ekintzarako gai izan daitezen zein arlotan prestatu erabakitzeak irispide handiko ondorioak izaten ditu, horren arabera hautatuko baitira egoerak, asmoak, eginkizunak, gaiak eta testuak materialak eta irakaste eta ebaluatze jarduerak prestatzeko”.

Hezkuntzaren eremuak ikasleak beren eskolaldi osoan zehar prestatu behar ditu ahalik eta interesgune gehienetan ekiteko, gradazio bat ezarriko hizkuntzaren eta generoen formalizazioaren inguruan. Gero eta gehiagoko gradazio honetan, zeinean ikasleek gero eta konplexuagoko hizkuntza bat erabiltzeko gaitzen diren, hausturak izaten dira, eskolaldia aurrera doan neurrian gainditu beharreko desafio berriak:

■ **Haur Hezkuntza:** Familiaren hizkuntza /eskolaren hizkuntza.

1. Idazketaren munduan sartzea.
2. Familiako ahozko ohiturak sendotzea.

■ **Lehen Hezkuntzako lehen zikloa:**

1. Irakurri eta idazteko kodea sistematikoki ikastea.
2. Ahozko erabilera formalak ezagutzen hastea.

■ **Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa:**

1. Irakaslea lagun testuak irakurri eta idaztea.
2. Ahozko genero formaletan sakontzea.

■ **Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa:**

1. Norbere kasa liburuak irakurri eta testuak idaztea, testuak modu espresiboan irakurtzea.
2. Ahozko erabilera formal dibertsifikatuak eta diferentziatuak erabiltzea nork bere kasa.

■ **Bigarren Hezkuntza:** Hizkuntza formalizatzea eta aztertzea, ikuspuntu bategatik, elkarriketa, askotariko testu ahozkoak eta idatziak sortzea, parametro instituzionalak begiratzuz.

Bigarren Hezkuntzako etapan bistan da hizkuntza ezinbesteko tresna dela eskolako ikasketan irakasgai guztietarako, eta bai, aldi berean, ezagupenak hizkuntzaren bidez transmititzen direla. Bitariko bide hori nahi dugu azpimarratu lan honetan,

.....

ezagutza arlo desberdinak elkarretarazten baititu, ikasleei irakasgai guztiek komun dituzten trebetasunak gararaziz, nahiz eta bakoitzaren edukiak epistemologikoki erabat desberdinak izan.

Generoak arlo guztietan hainbat ikasketa egoera ohikotan aurkezten dira. Horretaz ohart izateak lagun egingen die irakasleei ikasketa-irakasketa egoerak programatzen, ikasleei testuen inguruan eginarazten zaizkien lanak aprobetxatu eta etekina ateratzeko modukoak, halatan non ikasleak gai izanen baitira hainbat genero ahozko eta idatzitako testuak sortzeko hizkuntza trebetasunak garatuz.

Ikus 26. orrialdeko koadroa egoera horien adibide batzuk ikusteko.

Taula honetan zenbait ikasgelatan maiz izaten diren ikasketa egoerak proposatzen dira, Bigarren Hezkuntzako ezagutza arlo gehienetan. Haietan denetan testua da ardatz nagusia, edukien transmisiobidea, eta testu generoak eduki horiek egoera horietan nola irakatsi, ikasi edo aurkeztu ere markatzen du.

Testu horiek denak erregistro edo eremu jakin batekoak dira: erregistro akademikokoak hain zuzen, eta hortaz helburuak iritsi eta ebaluatzeko ikasleei eskatzen zaien korrekzio eta formaltasun maila da ikasketa mota honen irizpide nagusietako bat.

Bestalde, eskola testuinguruan hainbeste testu mota desberdin erabiltzen direlarik, nahitaezkoa da arlo guztietan garatzea ulermena eta adierazmena, ahozkoak eta idatzizkoak. Helburua ez da soilik *ikasleek Zientzia zerbait, Gizarte zerbait, Musika zerbait eta abar ikasteak, baizik eta Zientzia, Gizarte, Musika gaien gainean egoki hitz egin eta idazten ikastea*.. Eta testu motak ugaltzen direlarik, komunikazio trebetasunak ere garatuko dira.

Eskolak, bada, instituzioa den partez, ikasleengandik hauxe espero du: gai izan daitezen ahoz nahiz idatziz ulertu, idatzi eta bere burua aditzera emateko hainbat testu akademiko motatan, zeinen edukiak edo gai nagusiak curriculumeko arlo guztietakoak diren (adb. Giza espeziearen bilakaeraren gaineko hitzaldi bat, energia ez berriztagarrien gaineko eztabaida, Frantziako Iraultzaren gaineko azalpeneko testu bat, termino soziolinguistikoen arteko harremana azaltzen duen mapa kontzeptuala: hizkuntza, dialektoa, elebitasuna, diglosia...).

Curriculumeko gai desberdinen gainean hitz egiteko gai izanez gero, genero hauek hauta ditzakegu eskolaren eremuan:

- Ahozko azalpena.
- Eztabaida.

- Elkarrizketa.
- Bizitzako esperientzien kontaera.
- Laboratorioan hautemandakoen deskripzioa.
- Aparatu batek nola diharduen edo nola eraiki behar den esplikatzea.
- Arte ibilbide edo kulturazko bidaia bat esplikatzea.
- Proiektu edo lan monografiko bat aurkeztea.
- Ahozko laburpena.
- Grafika bat edo grafika multzo bat ahoz esplikatzea.
- Joko bat segitzeko jarraibideak.

Haietatik, ahozko azalpena izanen da segur aski maizenekoa eta agian errentagarriena ere; osoenetakoa ere bada, arestian esan bezala, gaian jantzita egotea, hizkuntza erabiltzen trebea izatea eta testuaren egitura ongi ezagutzea eskatzen baitu. Arlo bat baino gehiagotako irakasleak elkarlanean arituz, hizkuntza irakasleek ardura hartu lezake zientzietako, giza jakintzako eta abarreko testuen alderdi linguistikoak zaintzeko, eta hizkuntzaz beste arloetako irakasleek, berriz, dokumentazioaz arduratu, jorratu beharreko testuak eta edukiak hautatuz.

Zoritxarrez, horrela elkarlanean aritzea ez da beti posible. Kasurik okerreanean jarrita, demagun hizkuntzaz beste arlo bateko irakasle batek, berak bakarrik, bere irakasgaiko gai baten gainean ahozko azalpen bat programatu behar duela. Irakasle horrek tresna baliagarri, bakun eta eragingarria izan behar luke eskura, zuzenean esku-hartu ahal izateko, Diskurtzu generoei eta hizkuntza alderdiei buruzko berarizko prestakuntzarik hartu gabe.

Horregatik, proposatu behar dugun jarduera saila, orokorra eta egoera guztietara moldatzeko modukoa izateko pentsatu da: hizkuntza hutseko lana, funtsezkoa eta kontrolatua bada ere, ez da berariaz aztertuko, ez baikaude hizkuntza hutsaren arloan, nahiz eta arreta emango zaion. Aski litzateke ikasketa mota hau ikasturtean behin egitea, dela irakasle bat baino gehiagoren lana denboran elkartuz (horrela elkarlana erraztuko litzateke), dela hiruhileko eta ikasturte banatan eginaz arlo desberdinetan eskatuko diren azalpen motak.

Hortaz, eta kontuan harturik hizkuntzaren forma eta hizkuntzak aditzera ematen dituen kontzeptuak ezin direla modu absolutuan bereizi, komeni da hemen geldialdi bat egin eta gogoraraztea zein diren testuaren ezaugarriak testu hizkuntzalaritzaren arabera, hobeki ulertzeko haietako zein alderdi landuko diren. Ez dezagun ahaztu, izan ere, irakasleek azken finean ahozko azalpen bat produzitu behar dutela eta hortaz, zein ere eduki diren azaltzen direnak, beharrezkoa dela zein testu-alderdi diren kontuan hartu beharrak eta bai generoaren ezaugarriak ere.

.....

GAITASUNAK: ULERMENA ETA ADIERAZMENA	IRAKASGAIAK ●●●●● ●●●●● ●●●●● ●●●●● ●●●●●	ESKOLAKO ●●●●● ●●●●● ●●●●● ●●●●● ●●●●●	AHOZKO ETA ●●●●● ●●●●● ●●●●● ●●●●● ●●●●●	HELBURUAK ●●●●● ●●●●● ●●●●● ●●●●● ●●●●●	EBALUAZIO ●●●●● ●●●●● ●●●●● ●●●●● ●●●●●
Ahozko testuak ulertzea	<ul style="list-style-type: none"> ■ Gorputz heziketa ■ Patioan, kirolean ari. ■ Natur zientziak ■ Laboratoriorian, esperimentu bati adi. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Joko arauak. ■ Hautemandakoa deskribatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Joko arau eta jarraibideak ulertzea. ■ Prozesuen deskripzioa ulertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Joko eta kiroleko arau eta jarraibideak egoki interpretatu eta aplikatzea. ■ Esperimentu bat egoki deskribatzea, berariazko hiztegia erabiliz eta segida logiko batekin. 	
Ahozko adierazmena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Matematika ■ Ikasgelan, problema bat taldean ebartziz. ■ Musika ■ Ikasgelan, talde lan batean ari. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Problema ebazteko argudiodideak. ■ Ahozko azalpena. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Argudioak erabiliz eztabaidatzea bizitza errealeko problema baten ebazpidea aurkitzeko. ■ Berariazko hiztegia erabiltzea talde proiektu bat azaltzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Argudioak eta kontrargudioak erabiliz problemen emaitzak adieraztea. ■ Ordenatuki azaltzea, berariazko hiztegia erabiliz. 	
Testu idatzi bat ulertzea	<ul style="list-style-type: none"> ■ Natur zientziak ■ Ikasgelan edo liburutegian, gai baten gainean gauzak ikasteko manua-lak irakurriz. ■ Geografia eta Historia ■ Ikasgelan, mapak eta grafikoa interpretatuz gai bat ilustratzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Azalpeneko testu zientifikoak, Diagrama edo eskemekin. ■ Mapak ■ Taulak eta grafikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Testu idatzi bateko informazioa interpretatzea. ■ Mapak, taulak, grafikoa eta abar interpretatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Diagramak eta eskemak dituzten azalpeneko testuen inter-pretazioak osatzea. ■ Eskututako datuak mapa, taula eta grafikoa aurkitu eta at-eratzera. 	
Idatzizko adierazmena	<ul style="list-style-type: none"> ■ Matematika ■ Ikasgelan. ■ Geografia eta Historia ■ Ikasgelan edo liburutegian. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Ikerketa baten emaitza. ■ Txostenak. ■ Dokumentuak. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Oharrak hartzea. ■ Txostenak eta dokumentuak laburbiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Ikerketa baten emaitzak idatziz laburbiltzea. ■ Laburpenak idaztea hainbat informazio testutako ideia nagusiei antz emanaz. 	

I.8

Ahozko azalpenaren ezaugarriak testuaren propietateen alderako

Aurreko atalean ikusi dugu, Bernardezen definizioaren arabera, *testuak* hainbat propietate dituela, egiturazko batasuna ematen diotenak, bai esangurari eta bai formari dagokienez. Horrez gain, testu guztiek asmo bat izaten dute eta komunikazio egoera batean txertatuta daude. Testua komunikazio unitate ongi egina bihurtzen duten alderdiei *testu propietate* deritze eta hauek dira: *egokitasuna*, *koherentzia* eta *kohesioa*. Propietate horiek lagungarri dira testu mota diferenteak karakterizatzen eta modu objektiboan aztertzen propietate horiei dagokienez. Hortaz, ahazko azalpen bat produzitu eta ulertzeko, komeni da aurrez jakitea testu propietateak nola definitzen diren (Cuenca et al., 1998; Ruiz Bikandi et al., 2000):

- **Egokitasuna:** testua eta testuinguruaren arteko harremanari dagokion propietatea da, eta bereziki komunikazio egoeraren elementuek duten eraginari dagokiona: igorlea, hartzailea, enuntziazioaren noiz-nongoak, kanala eta asmoa.
- **Koherentzia:** testuaren esangura osotarakoa hartzen du aintzat: gaia, transmititzen den informazioa, nola hautatzen eta aurreratzen den informazioa eta nola antolatzen den (egitura). Koherentzia igorle eta hartzailearen artean eraikitzen da bien arteko komunikazio elkarlanaren ondorioztat.
- **Kohesioa:** Testuko unitateen arteko harremanak agerian jartzen dituzten mekanismo sintaktiko-semantikoei dagokie: lerroaldeak, perpausak eta sintagmak. Hau da, testuko parteak osotarako koherentziaren mesedetan lotzen dituen propietatea da.

Propietate hauetako bakoitzari gagozkiola, ahazko azalpena ikergaitzat karakterizatzen da, gainerako azalpen testuetatik desberdintzen duen berezitasun bat emateko asmoz. Horretara, testuaren generoa menderatuta edukitzeak lagun egiten die irakasleei generoa modu kontrolatuan irakasten eta ikasleei ere testuinguru jakin batean berregiten:

.....

EGOKITASUNA

Diskurtsu mota honetan aurkitzen diren alderdietatik hiru azpimarratuko ditugu:

■ Enuntziatio egoera eta diskurtsuaren pertsonak

Testu mota honen ezaugarri da asimetrikotasuna, hau da, halako testuan igorleak gaia menderatzen duen “aditu” baten figura egiten du, gaia ezezaguna duten entzule edo hartzaile batzuen aurrean. Igorlearen lana da bere ezagupenen eta bere entzuleenen arteko distantzia laburtzea diskurtsuaren bidez. Ahozkotasunak, bestalde, lagun egin dezake mekanismo gehiago sortzen hartzailea diskurtsuan partaidetzen, hala nola *gu*-ka hitz eginez, igorlea eta hartzailea batzen baititu.

Testu mota honen ezaugarria da. Halaber, bakarrizketan oinarritua izatea, nahiz eta kasu batzuetan aditu bi edo gehiago hizlari direla ere egiten ahal den.

Azalpen batean azalpengileak bere gaia egoki defendatu behar du, halatan non entzuleentzat egi-antza duen. Hala ere ihes egin behar dio subjektibotasunari, bere lana azalpena baita, informazio objektiboduna.

■ Informazio inplizituak

Hitzezko eta ez hitzezko komunikazioen arteko harremanak oso garrantzi handia du ahozko azalpenarako. Igorleak, azalpenaren egitura aurrez planifikatu ez ezik, lagungarriko irudiak, grafikoak, eskemak eta abar ere prestatu behar ditu, elementu ez hizkuntzazkoak ahaztu gabe, hala nola jestuak edo doinua, horiek ere lagungarri baitira testuaren edukia egoki interpretatzeko.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat testuartekotasuna da, hau da, irakurlea beste testu batzuetara bidaltzen duen eta testu horiek esplizituki aipatzen dituen mekanismoa. Arlo guztietan irakatsi eta ikasi behar da nola sartu azalpenean erreferentziako obren aipuak edo alusioak. Eskolaren testuinguruan, jakina, ezaugarri hau garrantzi handikoa da, zeren egileak eta obrak egoki aipatzen ikastea, modu indiskriminatuan kopiatu gabe, gauzak ikasteko eta ezagupenak aurkezteko estrategia guztiz baliagarria baita.

Elkarlanaren printzipioa ere kontuan hartu behar da: komeni da gogoan izatea oreka egon beharra dagoela emandako informazio kopuruaren, esandakoak osotasunarekin duen garrantziaren eta aurkezpen modu argi eta laburraren artean. Azalpenik hoberena ez da luzeena, eta ez entzuleen aurrean ezagupen gehien aurkezten dituen edo adierazpen trinkoenekoa, baizik eta igorlea gai bat modu argian esplikatzen mol-datzen dena, interesa galdu gabe denbora egokian eta halako amenitate batekin.

KOHERENTZIA

Azalpen diskurtsua diskurtsu formala delarik, koherentzia lan handia beharrezkoa du. Igorleak (edo igorleek) aurrez prestatu eta planifikatu behar dute gaia eta haren garapena. Horretarako honako alderdiak dira kontuan hartu beharrak:

■ Sekuentziak

Ahozko azalpen testuan, azalpen sekuentziak ez ezik, deskripzio eta argudio sekuentziak ere ager daitezke. Sarrera eta ondorioak, adibidez, nagusiki azalpenezkoak izan dira, informazio hutsekoak; baina garapenean, berriz, deskripzio sekuentziak ere egon daitezke: gertaera historiko edo sozial baten deskripzioa, aparatu nahiz tresna batena, naturako fenomeno batena, esperimentu zientifiko batena, bere ezaugarri, forma eta jardunbidea (jatorriak, esperientziak, aipamenak), baina batzuetan argudiozko sekuentziak ere izaten dira, ikuspuntu bat baino gehiago ematen dituztenak edo argudio egiantzeko bat esplikazio bakartzat ematen dutenak.

■ Testuaren gaia

Gaia hitzaldiaren izenburuan esplizituki emana egoten da. Gaia interesgarria da entzuleentzat, dela ezezaguna zaiolako, dela nolabaiteko prestakuntza izan gabe lortu ezinako esplikazio bat beharrezkoa duelako. Eskolaren testuinguruan, curriculumaren gai batzuek hartu ditzake ardatz, dokumentazio prozesu bat eta datu, gertaera, esperientzia batzuen esplikazioa ematen dutenak (adibidez: zulo beltzak, abangoardiak eta surrealismoa, elikadura osasungarria, balantzaren historia eta erabilerak...).

■ Informazioa hautatzea

Ahozko diskurtsua eman aurretik alderdi honek, ahazko azalpenaren kasuan, garrantzi berezia hartzen du eskolaren testuinguruan. Gai baten gainean ahazko azalpen ona emateko, iturri bat baino gehiagotako informazio konprobatua hartu behar da oinarri. Ikasleek ohitu behar dute informazio iturri askotarikoak erabiltzen eta azaldu beharreko gairako ardurako diren edukiak hautatzen. Horretara eta ez bestetara hartuko du esangura ahazko azalpenak, kontua ez baita idatzizko testu bat buruz errepikatu eta horrela ahazko bat sortzea, beregaineko produkzio bat egitea baizik, testu batzuen edukia transmititzeko balio izan deza-keena. Ildo horretatik, genero hauek dira ahazko azalpenaren osagarri: laburpena, sintesia ikasleek bi testu edo gehiago oinarri hartuta azalpena prestatzeko itxur- ratzen dituzten oharrak.

.....

■ Informazioaren antolaera

Aurrekoarekin loturik, alderdi hau ere oso garrantzi handikoa da hautatutako ideiak hierarkizatu eta modu argi batean antolatzeko. Batzuetan informazioak birformulatu egiten dira, errepikatu edo exenplifikatu ere bai. Beste batzuetan informazio berriak sartzen dira, horrela testuari aurrera egiten lagunduz (gaiaren aitzinamendua).

Badira azalpenak bereizgarri dituen beste harreman klase batzuk ere, hala nola termino antzekoen edo desberdinen arteko konparazioa, gertaera edo xehetasunen enumerazioa, aurrekari eta ondorioen arteko kausa harremana, emandako problema baten argitzapena eta esanguren definizioak gai baten azalpeneari aurrera egiteko.

KOHESIOA

Kohesio mekanismoetan bi mota bereiziko ditugu:

■ Erreferentzia mekanismoak

Deixi pertsonala. Testuaren eta testuinguruaren arteko harremani dagokie eta ahozko azalpenean singularreko lehen pertsona erabiltzean islatzen da (*Gai bat hartu behar dut hizpide / gai baten gainean arituko naiz, eta da...*) pluraleko lehen pertsona (*Grafiko honetan biztanleriaren hazkundera ikusiko dugu...*) edo pluraleko bigarren pertsona (*Aditu al duzue inoiz zulo beltzen aipamenik?...*). Kasu guztietan helburua da igorlea edo/eta hartzailea enuntziatuan sarraraztea.


Kohesio lexikoa. Erreferentzia mekanismo honek ere garrantzi berezia du ahozko azalpenetan. Gai jakin baten gainean ari garela, kontzeptu berak behin eta berriz aipatzen dira testuan barrena. Horregatik komeni da ez gehiegitan errepikatzea testuan hitz berberak. (*gaia-gaia; elikagaiak-elikagaiak*) edo balio orokorreko izenak (*ideia, gertaera...*) eta beste kohesio mekanismo batzuk hobestea haien ordez kontzeptua errepikatu bai baina forma aldatzeko aukera ematen digutenak, hala nola sinonimoak, hiperonimoak eta hiponimoak. Garrantzi handikoa da, halaber, ikasleekin esangurazko kohesio lexikoa lantzeko ariketak egitea, bai kontraste bidezkoak, osagai bat beste batekin dituen diferentzien bidez aipatuz, edo harreman entziklopedikoaren bidezkoak, hau da, alor semantiko berekoak izateagatik lotuta dauden kontzeptuak.

■ Lotura mekanismoak

Lokailuek testuko parte desberdinak lotzen dituzte esaldi elkartu batean edo esaldi diferenteen artean. Ahozko azalpenean maizenik izaten direnak informazio testuan barrena banatzen dituztenak edo harreman logikoak adierazten dituztenak dira. Aipa ditzagun batzuk:

- Hurrenkera bat markatzeko erabiltzen direnak: *aurrena, lehenbizi, lehenik, alde batetik, batetik, bigarrenik, ondoren, hurrena, bestetik, bestalde, beste alde batetik, halaber, era berean, gero, azkenik, bukatzeko.*
- Kausa adierazten dutenak: *zeren (eta), -lako, bait-...*
- Gehikuntza adierazten dutenak: *gainera, horrez gain, gehiago dena, hori ez ezik...*
- Ondorioa adierazten dutenak: *hortaz, hala bada, beraz, horrenbestez...*
- Ideia bat esplikatzeko erabiltzen direnak: *hau da, hots, alegia...*
- Laburbiltzeko erabiltzen direnak: *laburki esateko, laburbiltzeko, azken finean...*
- Erabat egokia ez den ideia bat birformulatzen dutenak: *hobeki esan, bestela esan...*
- Kontrastea adierazten dutenak: *... berriz, ... aldiz... aitzitik, hala ere, guztiarekin ere, ordea...*

.....



2.

**Ahozko azalpenerako
sekuentzia
baten adibidea**

2.1

Sekuentzia, irakas-irakas-prozesua planifikatzeko tresna

Proiektua, ataza, sekuentzia eta *irakas-unitatea* bezalako terminoak maiz sinonimotzat erabiltzen dira *curriculum* prozesual direlakoan jardunbide didaktikoak definitzeko, zeinetan jarduerak ikasleek produktu erreal bat sortzeko antolatuturik dauden. Hortaz, programatzen diren jarduerak eta edukiek testuinguru horretan hartzen dute esangura, prozesuaren osotasunean eta konplexutasunean.

Ideia hau eta testuaren ideia hertsiki loturik daude, zeren esangura transmititzen den edozein egintza burutara eramateko, testuak beharrezkoak dira (ahozko nahiz idatzizkoak, formalak nahiz espontaneoak), horiek izanen baitira informazio lortu eta transmititzeko bide.

Testu horien mikro alderdiak (funtzioak, sintaxia, morfologia, lexikoa...) hizkuntzaren aldetik azter daitezke, eta komunikazio egoera, edukiak eta egitura (makro alderdiak alegia), edozein ezagupen arlotatik azter daitezke.

Ideia hori oinarri, asko garatu da Ginebrako eskolaren *sekuentzia didaktikoak* delako eredu, eta gerok ere eredu hori hartuko dugu erreferentziatzat jarduerasekuentzia prototipiko bat adibidetzat eskaintzeko, Bigarren Hezkuntzako arloetan hainbat ikasketa egoeratarako moldatzeko modukoa. Sekuentzia didaktikoaren kontzepturako, ikus Dolz eta Schnewlyk (1977) esaten dutena:

[Azkenik], *irakas prozesuek* eskolaren ingurunean esku-hartzea behar dute ikasleak aldatu eta generoak eta komunikazio egoerak hobeki menderatzea bultzatzeko. Helburu nagusia da ikasleei aurrera egiteko behar dituzten tresnak ematea. Horretarako, ikasleek beregisa oraindik ezin burutu dituzten komunikazio jarduerak konplexuak zatikatu egiten dira, oztopobide izan daitezkenak banaka landu ahal izateko.

Ikasgelako jardueren sekuentzia ahozko nahiz idatzizko genero baten inguruan antolatzen da sistematikoki. Genero hori proiektu orokor eta ikasleentzat esanguratsu den batean sartzen da. Sekuentziak testuak arakatu, manipulatu eta produzitzeko hainbat jardueraren sail artikulatua da, bakarkakoak nahiz taldekakoak.

Ahozko genero formalak irakastearen kasuan, sekuentzia horien berritasuna eta arrakasta horixe da, hain zuzen: ahozko adierazmenaren sistematizazioa, ikasgeletan hain gutxitan egiten dena, zailtasun handiak sortzen dituelako bai hizkuntzazko eta testuzko edukiak programatzerakoan eta bai ikasitakoak eta irakaslan ebaluatzerakoan.

Testuaren ikuspegiak ezin hobeki bateratzen ditu ahozko nahiz idatzizko trebetasunen ikaspena eta ezagupen gramatikal, sintaktiko nahiz ortografikoak bereganatzea, mezuak egoki igortzeko behar direnak, eta bai kasuan kasuko gaiaren edukiak ere. Eduki horiek genero konkretuen zerbitzuan jartzen dira eta kontuan hartzen dituzte komunikazio egoeraren ezaugarriak eta ahozko eta idatzizko generoen arteko diferentziak.

Hona hemen sekuentzia mota honen ezaugarri orokorrak:


1. Testu generoak, sekuentzia ardatz hartuta eraikitzen dira.
2. Sekuentziak oinarrizko egitura bat izaten du.
3. Azpiko printzipio teoriko batzuen arabera egina izaten da.
4. Modulutan antolatuta dago.
5. Ahozkoa nahiz idatzizkoa banaka irakasten dira.
6. Testua eta diskurtsua ikasteaz gain aldi berean sistema gramatikala, sintaktikoa eta ortografikoa eta curriculum arloetako edukiak ere ikasten dira.

Ezaugarri hauek argi erakusten dute zein baliagarria den lan eredu didaktiko hau ikasgelan: testu generoak ardatz hartzeak, izan ere, eskolako testuak ulertu eta sortzea eguneroko atazatat hartzea esan nahi du; sekuentziak egitura bat izateak, bestalde, aisatzen dio irakasleari bere lana tresna metodologiko konprobatu baten bidez gauzatzea; printzipio teorikoek (konstruktibismoa, proiektuen metodoa, prozesu curriculumak...) hainbat jakintza alor hartzen dituzte: psikologia, pedagogia, hizkuntzalaritza... eta abar; modulutan antolatuta egoteak esan nahi du sekuentzian jarduerak hainbat ikasketa eta testu alderdi diferenteren inguruan antolatzen direla eta modulu baten beraren barrenean jarduera batek hurrengoari urratzen diola bidea; ahozkotasuna eta idatziaren arteko diferentziak kontuan hartzen dira; eta, bukatzeko, irakasgaien eduki berariazkoak hizkuntza formala menderatzen ikastearekin batera ikas daitezke, hizkuntzari, gainera, ikaskizun gisa behar duen garrantzia emanaz, beharrezkoa dela juzgatzen den aldiro.

.....

2.2 Sekuentziaren egitura: esplikazio eskema

Sekuentzia didaktiko baten oinarriko egitura honako eskema honetan irudikatu daiteke (Dolz-Noverraz-Schnewly, 2001; 7)



Aurrena egoeran jarriko gara: xehero adieraziko diegu ikasleei zer ataza egin behar duten, eta praktikan jarriko ikasleek proposatzen zaien gaiaz lehendik dakitena, beren aurrezko ezagupenak alegia. Lehenbiziko produkzio honek, *hasierako produkzioa* deitua, hasierako ebaluazio bat dakar berekin, zeinaren helburua den ikasle bakoitzaren gaitasunak, abiapuntua, alegia, finkatzea, sekuentziaren jarduerak haren premien arabera moldatzeko. Modulu desberdinetako ikas- irakas prozesua burutu ondoren, bukaerako produkzioa egiten da; produkzio hau batuketa moduko ebaluazio bategiteko aproposa da, sekuentzian landu diren alderdiak berriz hartuz.

2.3 Modulu desberdinak

Modulutasuna ikasle talde desberdinen premien arabera moldatzeko erraza da.

Moduluetan helburua da ikasleen hasierako produkzioan agertu diren problemak eta zailtasunak lantzea eta berek beregain ebazteko tresnak ematea.

Zilegi da hasierako produkzioen adibideak bideoan hartzea, ondoren xehero aztertu ahal izateko ikasleek zer dakiten eta zer egiten duten, zer hobetu dezaketen eta zer ez dakiten batere. Azterketa hori eginik, haren arabera proposatzen dira helburu didaktikoak eta produkzio jarduera zatikatuko den moduluak, prozesuaren alderdi diferenteei banaka heltzeko.

Ahozko azalpenaren adibidetzat aurkezten dugun sekuentziaren kasuan, ez da agertzera eman hasierako produkzioa; egoeran jartzea egin eta berehala kokatua behar luke, eta lehenbiziko moduluaren aurretik. Produkzio hori nola egin erabakitzeko, kontuan hartuko da zenbat denbora dagoen sekuentzia osoa bururatzeko, eta bai ere proposatzen diren gaiak berariaz nolakoak diren.

Lau dimentsio egoten dira testua produzitzeko prozesuan; modulu banatan lantzen dira, bakoitzean testu produktioko problema jakin batean zentratzen baita arreta:

- Komunikazio egoera irudikatzea.
- Edukiak itxuratzea.
- Testua planifikatzea.
- Testualizazioa.

Edozein testu produktiok komun dituen dimentsio hauek harreman estua dute, beraz, sekuentziarekin. Kontua da modulu bakoitzean produkzio prozesuaren fase batean zentratzea, ez testuaren azterketan berean. Arreta horrela fokalizatzen (ez bereziki hizkuntza hutseko alderdietan edo 3.1 atalean deskribatutako testu propietateetan, baizik eta bukaerako produktuan, prozesuari arreta emanaz) heldu zaio sekuentzia mota honi bere diziplinartekotasuna eta edozein irakasle edozein ikasle motarekin erabiltzeko duen malgutasuna. Moduluak hurrenkeraz ere alda daitezke, bakoitzak produkzio prozesuko alderdi bana, elkarren osagarriak, lantzen baititu, baina sekuentzian duten hurrenkerak ez baitio ezertan eragiten bukaerako produktuari.

Aurkezten dugun programazioaren moduluetakoa jardueren helburua da zenbait elementu, prozedura eduki batzuk eta hainbat lan estrategia lantzea, testu bat produzitzeko prozesuko arestian aipatu lau dimentsioekin lotuak. Horretara, bada, ikasleak ikasten du generoa nola erabili eta ezagupen hori beste egoera batzuetara aldatzen du, elementu, eduki eta estrategia horiek guztiak ahozko azalpen guzti-etako osagai komunak baitira.

.....

J. Dolz eta B. Schneuwly-ren ustez (1998), ahozko azalpen bat itxuratu eta produzitzeko prozesuan dimentsio desberdinek ezaugarri dituzten elementuak hauek dira:

■ KOMUNIKAZIO EGOERARI DAGOKIONEZ

Lehenbizi, on da definitzea nortzuek osatzen duten komunikazio egoera. Ikasle bat edo batzuk izaten dira, “adituena” papera hartu dutenak entzulego baten aurrean (ikasgelako gainerako ikasleak). Igorlearen asmoa, kasu horretan hartzaileei ezagupen bat helaraztea izanen da; horiek, arretaz entzun behar dute gai baten gainean zerbait ikasi edo lehendik dakitena sakontzeko.

Marka deiktikoek (ikus kohesioa) hasierako egoera hori islatzen dute aditzeko pertsonetan eta singular zein pluraleko lehenbiziko izenordain pertsonaletan (ni/ gu / zuek): *...halako gaiaz hitz egingo dizuet...; ...delako gaia jorratuko dugu...; zuetako askok entzun izango duzue noski ... aipatzen...*

“Adituaren” papera ere ongi landu behar da, beraz, ikasleekin, halatan non ezagupen bat entzulego ez-jakin bati helarazteko egoeran kokatuko diren, entzulegoaren eta “adituaren” arteko disimetria ahalik eta gehien gutxitzeko. Kasu horretan helburua da ulertzea *irakatsiz ere ikasten dela*.

Fase honetan komeni da zenbait baliabide erretoriko praktikoko lantzea komunikazioa hobetzeko, hala nola:

- Galderak egitea entzuleen arreta harrapatzeko eta garatu behar den gaira hurbilazteko.
- Galderak egitea entzuleek azalpenari segitzen diotela segurtatzeko.
- Ikasleei goraki eta argiki mintzatzeko irakastea, eta behar diren geldiuneak eginaz, esaten dutena ongi ulertzen dela segurtatzeko.
- Sarreran azalpenaren gidioa edo parteak aurkeztea, argi uzteko zer eduki esplikatuko diren eta zer hurrenkeratan.
- Behar diren dokumentu lagungarri guztiak prestatzea.

■ AZALPENAREN BARNE ANTOLAMENDUA (EDUKIAK PRESTATU ETA PLANIFIKATZEA)

Hemen testu baten planifikazioa lantzea da helburua. Aurrena dokumentazio biltze fasea izanen da, informazio iturriak eta testu horietako ideia ardurakoenak hautatu eta hierarkia batean antolatzeko, gaiaren aitzinamendua segurtatzeko moduan.

Informazioa hautatu eta antolatzeko fase hori oinarri, azalpenari buruzko sekuentzian sekuentziaren parte eta osagai desberdinak landuko dira:

- **Irekialdia:** Gaia azaldu behar duen ikasleak hasierako agurra bota, entzuleekin harremana eratu eta adituaren plantan aurkezten du bere burua. Garrantzi handia du fase hau ongi prestatzeak, ikasleak entzuleen aurrean hartzen duen legitimazio mailak asko eragingo baitio bere lagunen aurrean izanen duen arrakastari. Seriotasun gehiago emateko, zilegi da azalpena grabatu eta gero irakaslea, “jostetaz”, modu formalean aurkeztea (*gaur X (eta XX) ...ahozko azalpena egiten ari-tuko zaigu (zaizkigu) // asko prestatu dute gai hori eta zuek orain oharrak hartu beharko dituzue // hortaz, zaudete erne eta mila esker Xi (eta XXi) // mesedez, nahi duzuenean hasi zaitezte!!!*).
- **Gaiari sarrera eman:** Gaia aurkeztu, mugatu eta justifikatu igorlearen ikuspuntutik. “adituak” eginahalean entzuleen arreta ere erakarriko du: *Nahi al zenukete ...az gehiago jakin?, Inoiz aditu al duzue aipatzen?, Zer dakizue ...aren gainean?*
- **Gidoia aurkeztea:** Hitzaldiko parte bakoitzean zer gai eta azpigai garatuko diren, eta zer hurrenkeratan. Gidoia itxuratzea eta aurkeztea (transparentzien bidez, fotokopien bidez edo arbelean idatziz) garrantzi handieneko jarduerak dira genero honetan.
- **Gaiak garatu eta kateatzea:** Gidoiaren izenburuak behar diren ataletan eta hurrenkeran aurkeztu behar dira. Testua egituratzeko jarduerak, ideiak mapa edo eskemetan antolatu eta hierarkizatzeak eta atal guztiak titulatuta eta enuntziatzeak oso baliagarriak izan daitezke.
- **Laburbiltzea edo sintezizatzea:** Puntu nagusiei berriro lotzeko aukera ematen du eta azalpenaren azken etapetara pasatzeko bide ere bai. Parte hau prestatzeko, aurrezko ariketa ona da ahozko nahiz idatzizko testuak laburbiltzea.
- **Ondorioa:** Azken buruko ideia bat aurkeztea, esandako guztia laburbildu edo problema berri bat –eztabaida bat irekitzeko– aurkezteko modukoa. Parte hau ere garrantzi handikoa da nahi badugu azalpena bukatutakoan ikasleek gaiaren gainean eztabaida egin edo galderak egin ditzaten. Ahozko azalpena oinarri hartuta problemak eztabaidatu edo hipotesiak egitea jarduera ederra da dudarik gabe gizarte eta zientzi alorretan, bai “aditua” gaia prestatzen ari dela gertatzen bada eta bai bukatu ondoren ikasgela guztian gertatzen bada.
- **Itxiera:** Azken etapa da; sarreraren nolabait paraleloa: hizlariak despedida hartzen dute, entzuleei eskerrak eman eta galderak egiteko gomita egiten diete.

.....

■ HIZKUNTZA EZAUGARRIAK

- **Koherentzia** . Koherentziak parte guztien arteko artikulazioa segurtatzen du: *orain energia berriztagarriak hartuko ditugu ahotan... ; arestian aurkeztu dugun bilakaera teoria honi, delako teoriak egiten dio kontra...; hortaz, momentu historiko honetara iritsirik, ekonomiak...*

- **Kohesioa**. Enunziatu desberdinen artean, bereizteko:

- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak: *nagusiki –batez ere–... ez dira, berriz, hain inportanteak...*

- Deskripzioen esplikazioak: *Gai erreziklagarriak dira paper/ kartoi /brik/ itxurako guztiak/ Erreziklatu ezinekoak, berriz, gai organikoak dira// eta... erreziklajearen ideia aspaldi sortu zen/ jendeak/ ikusi zuenean/ zabor guztia kanpoan edukitzeak/ kalte handia egiten ziola ingurumenari// Orduan erabaki zuten bi edukiontzi jartzea/ berdea gai organikoetarako/ eta urdina gai ez organikoetarako, hala nola kartoiak beira eta abar!!!²*

- Ondorioak, laburpenak eta sintesiak garatzea: *hala bada/ elikagaiak barrenean dauzkate gluzidoak edo karbohidratoak/ lipidoak edo gantzak/ proteinak/ ural/ eta ... beste konposatu mineral eta bitamina batzuk// bukatzeko/ bitaminek ez dute energiarik ematen/ baina kopuru txikietan beharrezkoak dira gorputzak ongi jarduteko!!!*

- **Adibideak sartzea** gertaera bat ilustratu, argitu edo jasotzeko: *hala nola, adibidez...*

- **Terminoak birformulatzea**, esangurak argitzeko. Baliabide mota honetan definizioak dira bereziki aipatzekoak, oso maiz azaltzen direlako azalpenezko testuetan, hainbat egiturarekin (Martínez Mongay eta García Armendáriz, 2003). Aniztasun horren barrenean zenbait ezaugarri orokor bereiz ditzakegu, edozein definizio gokik bete behar dituenak:

- Hiztegia egoki hautatzea.
- Egiturak bakunak izatea.
- Laburtasuna eta zehaztasuna.
- Terminoak unibokoak izatea.

Definitzeko ahozko azalpenetan maizenik erabiltzen iren egitura batzuk:

- **Perpaua kopulatiboa** (izan aditza eta atributua): *elikagaien nutrienteak proteinak, karbohidratoak mineralak eta ura dira.*

² Ikasle baten mintzadiaren transkripzioaren zati bat, María Asun Azerrad Comellaren «La exposición oral» delako sekuentzia didaktikoan, *Materiales para la atención a la diversidad en clase de Lengua I. La exposición oral* delako CDan.

- **Birformulazioak:** *Gluzidoetatik hasiko gara/ hau da/ gorputzari energia ematen dioten nutrienteetatik.*
- **Esatezko aditz bat erabiltzea** (...deitzen da, ...izena du, ...deritza, ...izenaz eza-guna da): *elikagaietako osagaiei nutriente deritze.*
- **Erlatibozko esaldiak:** *koipeak kaloriak ematen dizkiguten sustantziak dira.*

Bestalde, moduluen barrenean komunikazio eta ariketak bariatzea oso garrantzi handikoa da; hainbat jarduera mota izan daitezke:

- Obserbazio eta azterketazkoak.
- Testuak produzitzeko jarduera simple edo sinpletuak.
- Testuak aipatzeko hizkera komun bat itxuratzeak.

Horrela egiten bada onuragarria izanen da, ikasleak jorratzen ari diren generoaz hitz egiterakoan, hizkuntza tekniko bat bereganatuta edukiko baitute, eta bai arau pragmatikoak, sintaktikoak edo ortografikoak ere; arau horiek sistematizatu daitezke delako irakaslea hizkuntzakoa izatera gertatzen bada, edo beste ezagutza arlo bateko irakaslearekin elkarlanean aritzen bada.

2.4

Ahozko azalpen bat nola programatu

Programazio hau lagungarriko tresna dute irakasleek beren ikasleekin ahozko azalpena lantzeko jarduera sekuentzia bat garatu nahi badute.

Elkarlana bultzatzeko, zilegi da ikasleek binaka egitea azalpena, nahiz eta hemen programatzen eta aurkezten den sekuentzian gauzak bakarka egiteko moldaturik dauden. Horrela, segurtatu egiten da ikasle guztiak behin behintzat bakarka pasatzea esperientzi honetatik. Hala ere, komeni litzateke, beste ahozko azalpen egoera batzuetan, ikasle azaltzaileen kopurua aldatzea, dela kurtso berean baina beste irakasle batzuekin, dela hurrengo kurtsoan, ikasle guztiak ere trebatuta egon daitezen ahozko azalpen bat binaka eta are taldeka ere egiten.

Bestalde, ahozko azalpena bakarka egiteak ez du esan nahi ikasleak bakarrik egongo direnik. Aitzitik, barne sekuentziari esker egiaztatu daiteke jarduera asko bina-

.....

ka edo talde txikietan egingo direla, ikasleak bultzatzeko informazioa trukatu, elkarlana egin, ezagupenak berdinen artean partitu eta besteen iritziak errespetatzera.

Kontuan hartu behar da, bestalde, ikasketa mota hau, Bigarren Hezkuntzako etapen, balio handi-handikoak direla ikasleen nortasuna, autonomia eta errespetua gararazteko, zeren noiz eta nerabezaroan azaltzen baita bortizkienik norbere buruaren irudikapena, eta barregarri gelditzeko beldurra eta besteen iritzien beldurra izaten baitira gogorrenak. Praktika hau maiz erabiltzea lagungarri izan daiteke halako problemak gainditzen.

Ondorengo taula honetan helburu didaktikoak eta jarduera diferenteak modulutan batuta aurkezten dira. Modulu bakoitzak ahozko azalpena produzitzeko prozesuaren dimentsio jakin bat hartzen du, jarduera horiek honen ondoko 2.5 atalean garatuko dira, ezagutza arlo guztietako ikasleentzat baliagarri izateko moduan. Behar diren materialen aurreikuspena era ageri da.

	HELBURUAK	JARDUERAK	MATERIALAK
Egoeran jartzea	<ul style="list-style-type: none"> ■ “Ahozko azalpena” generoari antz ematea. ■ Sekuentzia koherenteki interpretatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Lehendikako ezagupenak abiaraztea. ■ Ahozko azalpenen grabazioa ikustea. ■ Azalpenen gaineko galderak dituen galdetegia. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Azalpenak ageri dituzten bideoak. ■ Entzute orria.
1 Modulua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Azalpen bat antolatu. ■ Ahozko azalpenen ohitura hartzea. ■ Azalpen bat zer den ideia orokorra izatea. ■ Ulertzen laguntzeko, lagungarritzko testu bat erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Azalpen bateko parteei antz emateko jarduera. ■ Edukia laburbiltzeko jarduera. ■ Lagungarriak erabiltzeko jarduera. ■ Azalpena partez produzitzeko jarduera, arau batzuei men eginez. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Bideoak. ■ Edukientzako fitxak. ■ Lagungarrietarako fitxak. ■ Azalpen bat produzitzeko pausoak marikatzen dituen fitxa.
2 Modulua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa hainbat iturritatik hautatzea. ■ Lortutako informazioa laburbiltzea. ■ Azalpenari lagun egiteko euskarri ikustezkoak, egoiak eta esanguratsuak, diseinatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazio iturriak bereizi eta hautatzeko jarduera. ■ Nagusia eta bigarren mailako bereizteko jarduera. ■ Azalpena prestatzeko fitxak nola itxuratu. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazio iturrien gaineko fitxak. ■ Azalpenak prestatzeko fitxak. ■ Testuak.
3 Modulua	<ul style="list-style-type: none"> ■ Entzuleen arreta bereganatzea. ■ Komunikazio egoerari egokitzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Hizkuntzaz besteko osagaiekin ohitzeko jarduera. ■ Ahotsa, erritmoa eta doinua prestatzeko jarduera. ■ Produktzio jarduera. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Hizkuntza landako osagaiak eransteko fitxak. ■ Testu transkribatuak.
Bukaerako produkzioa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Entzule talde baten aurrean hizlari aritzea. ■ Informazioak modu egokian eskaintzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Azalpena bi ikasleren artean planifikatzea. ■ Entrenamendua. ■ Aurkezpena. 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Aurreko material guztia, eta harez gain azalpeneko edukiak itxuratzeko behar dena. ■ Ebaluazio fitxa.

.....

2.5

Jardueren sekuentzia

EGOERAN JARTZEA

■ I. Bideoa aztertu eta arakatzeko jarduera (bakarka)

Sekuentziaren fase hau burutara eramateko, ikasleek bideo bat edo batzuk ikusi behar dituzte, ahal dela, beraiek landu behar dituzten gaien gainekoak, eta haien ingurukoak. Arlo guztietan eskuragai egoten da halako materiala, eta kontua da momentu honetan ahalik eta probetxu gehien ateratzea hari³. Horri “heldu eredu” deritza.

Bideoa ikusi baino lehen, komeni da gaiari sarreratxo bat egitea. Lehendik dakizkitenak ernatzeko. Ondoren Entzute Orria pasatu ikasleei eta behin ikusten da bideoa. Entzute orria betetzeko, bideoa berriro pasatzen zaie. Ikusi ondoren, ikasleek honako hau bezalako entzute orri bat beteko dute⁴:

ENTZUTE ORRIA

(Jar gurutze bat erantzun zuzena seinalatzeko edo idatzi zuriuneetan)

1. Ahozko azalpen honetan jorratu den gaia hauxe da:

- A. Bizitza Animalien erresuman.
- B. Itsasoko animalien elikabidea.
- C. Nutrizioa.
- D. Hainbat herritan barnako itsasontzi bidaiak.

2. Elikagaiak honetarako dira.....

³ Iruñeko ILZan, Baliabide Zentroan, arlo guztietako bideo didaktiko anitz egoten dira, ahozko azalpenak maiz agertzen dituztenak. Besteak beste, hona hemen gomendagarri diren batzuk: *La exposición oral. Materiales para la atención a la diversidad en clase de Lengua I*. CDko Modelo de Adulto eta Producciones Iniciales y Finales direlako bideoak.

⁴ Jarduera honetarako hautatu den bideoak *Nutrizioa* du izena eta Iruñeko ILZko fondoetan dago. Gaia, kasu honetan, aitzakia hutsa da adierazteko zer alderdi diren garrantzitsuak eta nola formulatu behar diren entzute orrian, halatan non errazki eraldatu eta moldatu ahal daitezkeen beste bideo batzuk beste gai batzuen gainekoak ikusten badira.

OHARRA: Hemen aurkezten ditugun jarduerak itxuratuzko, Joaquim Dolz eta besteren *S'exprimer en français* liburua hartu dugu oinarri (4. bolumena).

.....

3. Zein eginkizun du landareen erresumak elikatzearen katean?

- A. Energia bero bihurtzea.
- B. Energia materia organiko bihurtzea.
- C. Eguzkitik argia hartzea, gurentzeko.
- D. Alorretarako ongarri izatea.

.....

4. Lotu:

- | | |
|-----------------|-------------------------------|
| ■ Landareak | ■ Kontsumitzaile primarioak |
| ■ Belarjaleak | ■ Produzitzaile primarioak |
| ■ Haragi jaleak | ■ Kontsumitzaile sekundarioak |

.....

5. Hauek dira elikagaiak osatzen dituzten sustantziak:

- A. Ura, esnea, haragia, eltzekariak eta zerealak.
- B. Ura, karbohidratoak, Gatz larria, aminoazidoak eta koipe animalak.
- C. Ura, karbohidratoak, koipeak, proteinak, gatz mineralak eta bitaminak.
- D. Ura, hidrogenoa eta oxigenoa.

.....

6. Proteinak dira gorputza eraikitzeko eta en oinarria.

.....

7. Proteinak dituzten elikagai hauetatik zein kontsumitu ohi dituzu?

- A. Esnea.
- B. Gazta.
- C. Arraina.
- D. Haragia.
- E. Eltzekariak.
- F. Zerealak.
- G. Bestelakoak

.....

8. Gure gorputzerako digestioaren prozesua zer da:

- A. Elikagaia deskonposatzea.
- B. Siesta.
- C. Arnasketa.
- D. Diskurtsu Azidoak eraldatzea.

.....

9. Gogoratu dietari eragiten dioten zenbait faktore:

.....

.....

10. Bideo honek hainbat parte ditu. Osa itzazu falta direnen tituluak:

- I. Aurkezpena.
 - II.
 - III.
 - IV.
 - V.
 - VI. Laburpena.
-

I. MODULUA

■ **I. Obserbazio eta azterketa jarduera** (bakarka)

Bereiz ezazu zer parte dituen bideoak eta idatzi parte bakoitzak zer gai duen.

Parteak	Edukiaren laburpena
Sarrera edo aurkezpena	
Garapena	I. partea:
	II. partea:
	III. partea:
	IV. partea:
Itxiera. Ondorioa edo laburpena	

.....

■ 2. Produkzio jarduera (bakarka)

Azalpenaren laburpen bat idaztea, orainaldia erabiliz eta aurreko fitxan agertu diren edukiei jarraikiz. Hurrenkera logikoa, testuaren koherentzia, adierazpen pertsonal zuzena eta enuntziatu desberdinen arteko lotura izanen dira ikasleek kontuan hartu beharko dituzten irizpideak. Hedadura 20 bat lerrokoa izanen da.

■ 3. Testuen gaineko gogoeta jarduera (binaka)

Ikasleek elkarri ematen dizkiote beren laburpenak eta ondorengo plantillaren arabera ebaluatzen dituzte:

Irizpideak	Adibideak	Balorazioa <small>X bat jarri behar den laukian</small>		
		Beti	Inoiz ez	Batzuetan
Orainaldia erabili	<i>Azalpen honetan jorratzen den gaia elikadura da...</i>			
Edukiak hurrenkera logikoa dute	<i>Lehenbiziko partean nutrizioa hartzen da ahotan...</i>			
Bere hitzak egoki erabiltzen ditu	<i>Bigarren partean nutriente ezberdinak aipatzen dira...</i>			
Esaldiak eta enuntziatuak lotzen ditu	<i>Ondoren digestioaren prozesua esplikatzen da...</i>			
Aurkezpen eta itxiera formulak erabiltzen ditu	<i>Bideo honek...du gaitzat/ bideo honetan azaltzen da nola.../bukatzeko</i>			

.....

■ **4. Testuaren gaineko azterketa, obserbazio eta gogoeta jarduera**
(binaka)

Ondoren, hainbat bideo edo bideo zati azaltzen dira, non hizlariak taulak, grafikoak, mapak edo eskemak hartzen dituzten euskarri zerbait esplikatzeko. Ikasleek honakoei antz eman behar diete:

- A. Zer gai jorratzen den bideo bakoitzean.
- B. Zer euskarri erabiltzen dituen (taulak, grafikoak, mapak, eskemak...)
- C. Zer eginkizun duten euskarri horiek, ondorengo koadroa erabiliz:

	A. Gaia	B. Euskarria	C. Zererako balio du...
1. bideoa			
2. bideoa			
3. bideoa			

Gehiago jakiteko...

Etenkatuak deritzen testuak asmo jakin batekin erabiltzen dira ahozko azalpen batean. Alde batetik, helburua da igorle-hartzaileei laguntzea garrantzitsuena gogoratzen eta azalpenaren haria galdu gabe segitzen. Beste alde batetik, testu horietako batzuk euskarri dira azalpenaren garapenean eta haien helburua da modu bisual, ordenatu eta argian agertzera ematea gaiaren alderdi ardurakoren bat.

Testu horietako bakoitza, gainera, ahozko azalpen bateko parte jakin batean agertzen da eta ezaugarri jakin batzuk ditu:

SARRERAN:

Eskemak eta aurkibideak: Testu hauek gai zerrendak edukitzen dituzte eta informazio antolatua eta hierarkizatua eskaintzen dute. Aurre-antolatzaileak dira ahozko nahiz idatzizko diskurtso bati jarraikitze edo hartzaileak diskurtsoaren haria ez galtzeko gidioak.

GARAPENEAN:

Taulak eta matrizeak: Taulak ilaraz eta zutabez osatutako matrizeak dira. Eskuarki zutabe bakoitzeko eta ilara bakoitzeko sarrera guztiek propietate berak izaten dituzte eta hortaz zutabe eta ilara bakoitzeko sarrerak testuaren informazio egiturako osagai dira. Taulak dira, adibidez, ordutegiak, kalkulurriak, eskaera inprimakiak eta aurkibideak.

Mapak: Testu etenkatuak dira, erakusten dutenak zer harreman geografiko dauden tokien artean. Mapa klase asko daude, hala nola errepide mapak, toki jakinen arteko distantziak eta komunikazio bideak markatzeko, edo mapa tematikoak, tokien arteko harremanak eta ezaugarri sozial edo fisikoak ageri dituztenak.

Koadro eta grafikoak: Datu irudikapen ikonikoak dira. Argudiatze zientifikoen lagungarritako erabiltzen dira eta bai ere egunkari eta aldizkarietan informazio publiko numerikoa eta tabularra formatu bisual batean aurkezteko.

■ 5. Produkzio jarduera (bakarka eta hirunaka)

Ondoren, ikasleek praktikan jartzen dituzte modulu honetan ikasitakoa. Hartarako, ondorengo jarraibideak beteko dituzte azalpeneko momentu bakoitzean esango dutenaz, laburki. Erabakiko ere dute zer eginen eta esanen duten hautatu behar dituzten eskemak edo beste lagungarriak erakusterakoan. Produkzio partziala da, gero batean alda daitekeena, bai diskurtsuari eta bai hautatutako euskarriaren erabilerari dagokionez. Hain zuzen, ikasketa hau erregulatzeko, komeni da ikasleek ahozko azalpena egitea beste bi ikasleren aurrean eta bukatzean haiekin komentatzea zer alderdi diren hobetzekoak, hartutako euskarria egokia zen, zer momentutan erabili behar duten eta abar.

AZALPEN BAT PRESTATZEKO JARRAIBIDEAK

SARRERA

1. Gizalegez agur egiten diet entzuleei, diodala
2. Hitzaldiaren gaia aurkezten dut, haren gaineko informazio orokorrak emenez, hala nola



- 3.** Hitzaldiaren gidoia edo sumarioa aurkezten dut, eskema bat erabiliz (*aukera hauetako bat hautatu*):
 - Arbelean idatziko dut, entzuleei etengabe bizkarra eman gabe.
 - Transparentzia batean erakusten ditut puntu desberdinak, puntero edo boligrafo batekin seinalatuz.
 - Fotokopiatu, eta entzuleen artean banatzen dut gidoia, gero ozenki irakurri eta esplikatzeko.
 - Bestelakoak.



- 4.** Eskema edo gidoia esplikatzeko halako esaera batzuk erabiltzen ditut: (*proposatutakoen artean batzuk hautatu*).....

Hasteko... ondoren... gero... lehenbizi... aurrena bigarrenik,... lehenik... bukatzeko....., segituko dut... eta azkenik.



GARAPENA



- 5.** Gaiez aldatzeko, halako formulak erabiltzen ditut:.....
...ri dagokionez, ondoren hartuko dugu ahotan -az den bezainbatean...



- 6.** Halako lagungarriak erabiltzen ditut... (*bat hautatu*)
 - Koadroak eta grafikoak
 - Taulak eta matrizeak
 - Mapak



- 7.** Grafikoa, mapa edo taula esplikatzekoan halako esaera batzuk erabiltzen ditut (*proposatutakoetan batzuk hartu*)
Hementxe ikusten dugu nola... eskuineko zutabean goiko ilaran ageri dira... eskuin aldean ezker aldean.... koloretan.... ageri dira.... grafikoan ageri diren datuek esan nahi dute...

Eta erakusteko, hauxe egingen dut (*aukera hauetako batzuk hartu*)
Fotokopia batzuk banatu.... transparentzia bat egin zutitzen naiz ahotan hartzen ditudan elementuak seinalatu...



ITXIERA

-
- 8.** Azalpena bukatzeaz dela adierazten dut (proposatutako-
etan batzuk hartu)
*Bukatzeke... laburpen honekin bukatuko dut... hortaz, hitzaldi honen akaberara
iritsi gara...*
-
- 9.** Entzuleei hitza ematen diet, esanaz
Eta egiten dizkidaten galderei erantzuten diet.
-

2. MODULUA

■ 1. Obserbazio eta azterketa jarduera (binaka)

Dokumentatzen ikasteko, ikasleek honako iturriak erabiltzeko gai izan behar dute:

- 1. Obra orokorrak: hiztegiak eta entziklopediak.
- 2. Obra espezializatuak: hiztegi espezializatuak, eskuliburuak, entseguak eta artikulak.
- 3. Dokumentalak eta hainbat ikusentzutezko mediotako dibulgazio programak.
- 4. Web orrialdeak, foroak eta interneteko kontsulta obrak.
- 5. Adituei aldizkari espezializatuetan, irratian eta telebistan egindako elkarrizketak.

Informazio hori oinarri, ikasleek hautatu egingen dute beren gairako zein obra zaizkien baliagarri, dela liburutegian bilatuz, Interneten eta abar, edo komunikabideetatik grabatuz, eta ondoko fitxa hau beteko dute, adibidean ageri den bezala:

Iturriak	Gaia	Informazio mota
Web orria	Sumendien jatorria	Grafikoa
...

.....

■ 2. Produkzio jarduera (bakarka)

Osagai ardurakoak eta arduragabeak bereizteko, ikasleek hiru testu irakurriko dituzte, hiru iturri desberdinetatik hartuak (adibidez, web orriak, entziklopedia bat eta aldizkari espezializatu bat). Ikasleek bakoitzetik hautatu beharko dute zein den eduki ardurakoa eta banaka laburtu. Ondoren, edukia antolatuko dute, gauzarik errepikatu gabe eta gaiaren koherentzia mantenduz, eta sintesi testu bat idatziko dute, azalpenaren lehen zirriborro izan daitekeena.

■ 3. Testuaren gaineko gogoeta jarduera (bakarka)

Ikasleek fitxak egiten dituzte informazio teknikoak gogorazteko, azalpena osorik irakurri beharrik gabe. Fitxa hauek edukiaren parte bakoitzeko tituluekin bat etor daitezke:

Atala:	Titulua:
Laburpena:	Idea funtsezkoak, hitz gakoak, aipamenak, erreferentziak...

3. MODULUA

■ 1. Obserbazio eta azterketa jarduera (bakarka)

Ondorengo enuntziatu hauetan, gauza batzuk esaten dire ahozko azalpen bat ezaugarri ez hitzekoei dagokienez nola egin behar diren esplikatzeke. Batzuk zuzenak dira eta beste batzuk okerrak. Ikasleek X batez seinalatuko dute zein iruditzen zaizkien okerrak eta zein zuzenak, eta hurrengo irizpideen arabera sailkatu: pausak, ahotsa eta begizko lagungarriak⁵.

⁵ Fitxa hauek itxuratzeko erabili diren irizpideak Mercedes Morenoren et al. obra honetatik hartu dira: *La exposición oral, materiales para la diversidad en clase de lengua I. La exposición oral CDa*.

JESTUAK

Enuntziatuak	Egia	Gezurra
1. Entzuleei begira egon zaitez denbora guztian, bizkarra eman gabe eta begirada beheratu gabe.		
2. Ez altxatu behinere jarlekutik, ez eta eskemak, grafikoak eta abar erakusteko ere, eta ez fotokopiak irakasleari edo ikasleei emateko ere.		
3. Komeni da entzuleetako alderdi bat baino gehiagori begiratzea, baina bereziki irakasleari eta zure adiskideei.		
4. Ez egon buru makurtuta azalpena irakurtzen ari zarela.		
5. Lasaitasun itxura egin behar duzu eta gaia menperatzen duzula erakutsi.		
6. Azalpenean hasi baino lehen, erlaja zaitez eta lasai hartu arnasa minutu batzuetan. Horrek lasaitasuna eta konfiantza emanen dizkizu.		
7. Oroit zaitez eskuek eta aurpegiak espresibitaterako tresnak direla.		
8. Ez da komeni txiklea jatea edo ahoaren aurrean eskuak, boli bat edo paper bat edukitzea.		
9. Eserita bazaude azalpenean, altxa zaitez eskema, grafiko, taula edo mapa erakusten duzunean, hura esplikatu ahal izateko.		
10. Komeni da jestu eta mugimendu bortitz askorekin erakustea gaian askojakina zarela.		

.....

ETENAK

Enuntziatuak	Egia	Gezurra
1. Komeni da azkar hitz egitea eta etenik kasik batere egin gabe, gehienezko denboratik ez pasatzeko.		
2. Azalpenaren haria galtzen baduzu, eten bat egin eta berriz irakurri gidoia edo ekarri dituzun notak.		
3. Ahal duzun aldiro, muletilla bat errepikatu: <i>zea... osea, hau da, bueno, etaaaa</i> , baina ez egin inoiz etenik.		
4. Segi iezaezue testu idatziko etenei, bai lerroalde artekoei nola ideia nagusia duten enuntziatuen artekoei.		

AHOTSAREN IGORPENA

Enuntziatuak	Egia	Gezurra
1. Ahots tonua aldatzeak lagun egiten du zenbait hitz edo enuntziatu gako azpimarratzen eta haiei enfasi handiagoa ematen.		
2. Inportantea dabeti bolumen bati eustea, ahal bezain ozen hitz eginaz edo oso apal mintzatuz ez inor gogaitzeko.		

BEGIZKO LAGUNGARRIAK

Enuntziatuak	Egia	Gezurra
1. Begizko lagungarriek (eskemak, grafikoak, taulak eta mapak) toki gutxi hartu behar dute eta ez du inporta entzuleek ez ikustea.		
2. Begizko lagungarriak diskurtsuaren haria argitu, esplikatatu edo mantentzeko tresnak dira.		

■ 2. Testuaren gaineko gogoeta jarduera (binaka)

Ikasleek beren erantzunak lagunenekin erkatuko dituzte eta gero azalpena ongi egiteko kontseilu batzuk adostuko dituzte idatziz. Hartarako, zilegi izanen dute benetako enuntziatuak kopiatu eta beren koadernoan ordenatzea eta baita enuntziatu gezurrezkoak zuzen idatzirik eranstea.

■ 3. Produkzio jarduera (taldeka)

Talde bakoitzak irrati iragakarki labur hauetako bat izanen du⁶:

[Telefono txirrina]

1. pertsonaia: *Bai / esan*

2. pertsonaia: *Don Camilo/ zer modu/ Torres naiz /zorianak kargu berriagatik/ gizona... enpresario ereduzkoa zara*

1. pertsonaia: *Baina... ni jubilatuta nago-eta/ hori orain dela bi urte izan zen/ gizona*

2. pertsonaia: *A!! mmmm/ bueno/ je/ inoiz ez da berandulez /badakizu/ lanez leporaino gabilta...*

[Off-eko ahotsa: orain nahi duzun aldiro deitu ahalko duzu/ Telefonikak jaisten ditu prezioak goreneko orduetan/ hiri barneko deietan/ probintzi barnekoetan eta probintzi artekoetan/ informa zaitez 1004 zenbakian / Telefónica//]

Telefonikaren iragarkia, COPE, 99/00ko urtarrila-otsaila.

⁶ Base de Textos 2000 liburutik hartuak, euskaratuak.

.....

Gizonezko ahotsa:

Aizu / Maria / ezetz asmatu / Lavanorrera deitu dut eta etxera etorri zaizkit / neguko arropa guztia hartzera / eta alfonbrak ere bai / edredoiak / burusiak eta gortinak / sinistaidazu / fenomeno utzi dzkidate /

(Gitarra musika leuna)

Emakumezko ahotsa:

94884834 / zenbakira deitu / ikusiko duzu / zer eroso eta zer praktikoa / Lavanor tindategi-lixuategiak / ikaragarri baliagarriak /

(Gitarra musika leuna)

Lavanor / Eroski Hiperreko galerian / Tuteran /

Lavanor enpresako iragarkia, SER katea, Tuteran 2000ko urtarrilean.

Transkripzioak ozenki irakurri eta ondoren:

- A. Berridatziko dituzte testuak barren ordeztu (/) komak, puntu eta koma edo bi puntuak jarritz, eta gainera, behar diren galde eta harridura zeinuak eta puntuen ondoko maiuskulak ere bai.
- B. Ozenki irakurri zentzua izateko eta gustagarri gertatzeko moduan.

■ 4. Testuaren gaineko gogoeta jarduera (binaka)

Ondoren ikasleek ahozko azalpen testu baten transkripzio hau irakurriko dute. Testua bitan banaturik aurkezten da, bakoitzak parte bana irakurtzeko. Testuan letra beltxean edo/eta maiuskulan ageri dira enfasi handiagoa eman behar zaien hitzak. Grafikoki bereizi dira, letrak bakanduz, halaber, geldiroago ebaki behar diren soinuak. Ariketa egin ondoren, ikasleek beren parte elkarrekin trukatu eta berriz irakurriko dute.

Internet Radio 5

DENOK dakigu irakurtzea ohitura dela eta baita ere, Egileen Elkarteak 1998an kultura kontsumoari buruz egindako inkesta baten datuei esker, badakigu gero eta bakanagoko ohitura dela.

ESPAINOLEK, hurbileneko erreferentzia aipatzeko, gero eta gutxiago, ikaragarri gutxiago, izan ere, irakurtzen ditugu liburuak eta egunkariak: % 5 liburuak ez dute ia inoiz liburuak irakurtzen eta % 30 batek ez du inoiz egunkariak irakurtzen.

5

Gauza **benetan** kezagarria, gure eguneroko nekea eta lana kazetaritza ematen dugunontzat. Baina horrez gain **inkesta horrek** beste **datu batzuk** ere ematen dizkigu, izugarri erabilgarriak. **ADIBIDEZ**, gure nerabe eta gaztetxoek **ASKOZ ERE MINUTU GUTXIAGO** ematen dituzte telebistaren aurrean helduek baino. **Datu inportantea da zeren** historikoki mitoa ibili izan da gazteak direla telebista gehien ikusten dutenak. Inkestak dio **13 eta 24 urte bitarteko gazteek egunean 153 minutu ematen dituztela ordenadore aurrean (zera, barkatu, telebista aurrean esan nahi nuen!)**. Baina 25 eta 45 urte bitarteko helduek egunean 190 minutu eta adin horretatik aurrera telebista minutuek eztanda egiten dute 239taraino.

DATU HORREK gaztigatzen digu elkarreragiterik gabeko komunikabideak **gehiago gustatzen zaizkiela helduei gazteei baino**. Gogoeta asko egin litezke datu horiek oinarri hartuta, baina nik oso gertakari xume bat aterarazi nahi dut haietatik:

Urte askotxo behar izan dira bideoak irratiko izarra akabatzeko (benetan akabatu badu behintzat); urte horietan informazioaren teoria **formulatu ahalaldatu zuten** zenean, etapaz etapa idatziz, askotan arau kontraesanekin: berdin goratzen zen izarretaraino irudi hutsaren gaitasuna, nola testuaren eta ahots lagungarriaren ezinbestekotasuna aldarrikatzen zen. **Ongi bada**, oraindik makina bat urte beharko dira irakurketa elektronikoko **den mendrena** toki kentzeko ... **ongi diot: den mendrena** toki kentzeko paperezko irakurketari, edo internet autoan erabiltzeko ohitura, komunikabide gisa, gidatzen ari garela edo gure hirietako **atasko ugarietan**, **adibidez Radio5 Todo Noticias** edo Jose Angel Elvira gaiteroaren azken diskoa entzuteko ohitura lekutzeko. Badira, **hori bai**, zenbait marka berrikuntza hori gama mega-altuko autoetarako iragarri dutenak... eta, **ZERGATIK?** Apenas **inor gauza delako** oraindik **panatalla n folio pare** batetik gora irakurtzeko. Gehiago dena: iraingarria da zermania dugun entzulego honetako parte garen belaunaldi guztiek eskuetara

iristen zaigun guztia inprimatzeko; **eskuetara ez: ordenadore** ra, Eta hori gutxienez beste **hamar bat urtean** gertatuko da oraindik, orain sortzen ari diren haurrak, I- belaunekoak, **Internet belaunaldikoak** alegia, nagusitzen diren arte. Orduan, hemendik hamar urtera, **gauzak aldatzen hasiko dira** eta, hemendik hogeita hamar urte barru gutxi gora behera, baliteke komunikabide inpimatuak hasiak izatea **Gutenbergen ibentutxo harekin** hasitako ibilbide luzearen bukaera ikusten. **NORK PENTSA ZEZAKEEN!** Anartean, kazetariak eta irakurleak, informatzaileak eta informatuek elkarrekin eraikiko dugu **komunikazio**

.....

berriaren teoria, ZUEK ETA GUK, milurteko berri honek, Interneteko milurtekoak, izan ere, hori baitu hoberena: **d e n e k i n k o n t a t z e n d u e l a .**

Próspero Morán, *Radio5 todo noticias*, 00-1. pertsonaia-31

■ 5. Produkzio jarduera (binaka)

Ikasleak saiatuko dira azalpenari behar den doinua eta erritmoa ematen. Produkzio partziala izanen da, eta beraz ez du inporta ez badute testu osoa prestatuta.

BUKAERAKO PRODUKZIOA

Bukaerako produkzioa prestatzeko ikasleek honako fitxa hau erabil dezakete:

ANTOLAMENDUA	
Sarrera	<ol style="list-style-type: none"> 1. Entzuleak kilikatzea. 2. Gaia modu atseginean aurkeztu. 3. Dokumentuak banatu.
DOKUMENTAZIOA	
Iturriak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Iturri desberdinak hautatu. 2. Iturri bakoitzeko informazioa hautatu.
Plangintza	<ol style="list-style-type: none"> 1. Gaiaren eta azpigaien arteko harremanak hierarkikoki antolatu. 2. Atal desberdinak sortu. 3. Gidoi koherentea eta interesgarria idatzi.
Lagungarriak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Begizko lagungarriak hautatu. 2. Argiak izateko moduan prestatu.
Fitxak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Edukien fitxak idatzi. 2. Behar denean bakarrik erabili.
EGOERAN JARTZEA	
Prestaera	<ol style="list-style-type: none"> 1. Azalpeneko edukiak menderatzea. 2. Inprobisatzea eta entzuleen erreakzioei aurrea hartzea.
Jestuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Denbora eta espazioa kudeatu. 2. Materiala ikasgelan kokatu.
Ahotsaren Igorpena	<ol style="list-style-type: none"> 1. Azalpena lagun batekin entsegatu. 2. Erritmoa eta intonazioa markatu. 3. Entzutea erraztu.

.....

Kontsigna

- 1. Ikasleek ahozko azalpen bat itxuratu eta ikasgela osoari aurkeztu behar diote.
- 2. Azalpenaren gaia curriculumeko gai bat izanen da.
- 3. Azalpenak bost minututik zortzi munutura iraunen du, gutxi gora behera.
- 4. Bakarka aurkeztuko da.
- 5. Begizko lagungarriren bat erabiliko da (eskemak, grafikoak, taulak, mapak).
- 6. Ikasleek honakoak emanen dizkiote irakasleari:
 - Azalpenaren testu osoa, gidoi edo eskemarekin.
 - Azalpenaren fitxak.
 - Erabilitako materialak (entzuleei emateko fotokopiak, transparentziak eta abar).

Bukaerako produkzioaren ebaluazioa, bai irakasleak eta bai ikasleek egina:

Ondorengo ebaluazio plantilla honek programatu diren eta eta ikasleek beren azalpena prestatzeko erabili behar duten fitxan ageri diren edukiak hartzen ditu. Plantilla hau irakasleak erabiliko du azalpen bakoitzeko ebaluazio sumatiboa egiteko. Ikasleek, berriz, entzute orritzat erabil dezakete eta irakasleak ere erabil dezake hartarako, ahozko ulermena, arreta, eta ikaskideek azalpenez egiten duten balorazioa ebaluatzeko. Plantilla bera erabil daiteke, beraz, hainbat helburu desberdinekin eta irakasleak nahiz ikasleek erabil dezakete.

BUKAERAKO PRODUKZIOA EBALUATZEKO PLANTILLA

ANTOLAMENDUA		
Sarrera	1. Entzuleak kilikatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 2. Gaia modu atseginean aurkeztu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 3. Dokumentuak banatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	
DOKUMENTAZIOA		
Iturriak	1. Iturri desberdinak hautatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 2. Iturri bakoitzeko informazioa hautatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	
Plangintza	1. Gaiaren eta azpigaien arteko harremanak hierarkikoki antolatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 2. Atal desberdinak sortu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 3. Gidoi koherentea eta interesgarria idatzi. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	
Lagugarriak	1. Begizko lagugarriak hautatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 2. Argiak izateko moduan prestatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	
Fitxak	1. Edukien fitxak idatzi. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 2. Behar denean bakarrik erabili. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	
EGOERAN JARTZEA		
Prestaera	1. Azalpeneko edukiak menderatzea. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 2. Inprobisatzea eta entzuleen erreakzioei aurrea hartzea. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	
Jestuak	1. Denbora eta espazioa kudeatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 2. Materiala ikasgelan kokatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	
Ahotsaren Igorpena	1. Azalpena lagun batekin entsegatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 2. Erritmoa eta intonazioa markatu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez 3. Entzutea erraztu. <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez	

.....

BIBLIOGRAFIA

Bibliografia aipatua

- CASTELLÁ, J.M. (2001): *La complejidad lingüística el discurso oral i escrito*, tesis doctoral, Instituto Universitario de Lingüística Aplicada. Pompeu Fabra unibertsitatea.
- CONCA, M. eta beste batzuk (1998): *Text i Gramàtica*, Bartzelona, Teide.
- DOLZ, J. eta SCHNEUWLY, B. (1997): “Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona”, *Textos 11*, Bartzelona, Graò.
- DOLZ, J. eta SCHNEUWLY, B. (1998): *Pour un enseignement de l’oral*, Paris, ESF.
- DOLZ, J., NOVERRAZ, M. eta SCHNEUWLY, B. (2001): *S’exprimer en français, IV. bolumena*, Brusela, De Boeck.
- HAINBAT EGILE, (2002): *Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación*, Madril, MEC-ANAYA.
- RUIZ BIKANDI, U. (ed.) (2000): *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria*, Madril, Síntesis.
- VILÀ, M. (2003): “Enseñar a hablar y a escuchar”, *Cuadernos de Pedagogía*, n.º 330, Bartzelona, Cisspraxis.


Material aipatuak

- CUENCA, M.J. (ed) (2000): *Base de textos 2000, Iruña eta Tuterako ILZak*. Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernu.
- GARCÍA ARMENDÁRIZ, M.ª V. eta MARTÍNEZ MONGAY, A. (2002): “Comemos para vivir”: *una tarea para aprender lengua a través de contenidos específicos en Secundaria*, Madril, Centro Virtual Cervantes.
- HAINBAT EGILE, (1998): *Materiales para la atención a la diversidad en clase de lengua I. La exposición oral. Iruñeko ILZ*. Nafarroako Gobernu. Hezkuntza Departamentua.

Bibliografia kontsultatua

- AMADO, J. (2003): *Hizkera zientifikoa eta ulermenezko irakurketa zientzien arloan*, Blitz, sail horia, Iruña, Hezkuntza Departamentua.
- HAINBAT EGILE, (2002): “Didáctica de la lengua oral formal”, *Articles 131*, Bartzelona, Graò.
- JIMENO, P. (2004): *Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan*, Blitz, sail gorria, Iruña, Nafarroako Gobernu. Hezkuntza Departamentua.
- ZORRAQUINO, M.A. eta PORTOLÉS, J. (1999): “Los marcadores del discurso”, In Ignacio Bosque eta Violeta Demonte (ed.): *Nueva gramática descriptiva de la lengua española*, 3. bol., Madril, Espasa-Calpe.

.....





sorta **Urdina**

Blitz Hezkuntza Departamentuan

1. Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa Hobetzeko gakoak
2. Eskolako liburutegia nola antolatu Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. Saillapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumetan Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiz gai antolatzeko jarraibideak
4. Eskola liburutegiaren informatizazioa. ABIES 2.0 programa

sorta **Berdea**

Blitz Eskolan

1. MARIANO CORONAS Eskolako liburutegia Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. VÍCTOR MORENO Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea Hausnarketak eta proposamenak
3. VILLAR ARELLANO YANGUAS Liburutegia eta ikaskuntza autonomia Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta ballatzeko gida didaktikoa
4. M^a JESÚS ILLESCAS Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu Erabiltzaileak iprestatzen

sorta **Horia**

Blitz irakurtzearen alde

1. Ulermeneko irakurketa eskola curriculumean Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
2. JESÚS AMADO MOYA Hizkera zientifikoa eta ulermenezko irakurketa zientzien arloan
3. ÁNGEL SANZ MORENO Ulermeneko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak
4. VÍCTOR MORENO Leer para comprender (ez dago euskarazko bertsiorik)
5. ÁNGEL SANZ MORENO Nola itxuratu ulermenezko rakurketarako jarduerak
6. Nola prestatu ulermenezko irakurketa plana DBH-ko institutu batean Bi adibide praktikoa
7. NATIVIDAD IRAIZOZ SANZOL FERMIN M.^a GONZÁLEZ GARCÍA El mapa conceptual: un instrumento apropiado para comprender textos expositivos

sorta **Gorria**

Blitz idaztearen alde

1. PEDRO JIMENO Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan

sorta **Laranja**

Blitz ahozko adierazmenaren alde

1. ANA MARTÍNEZ MONGAY Nola prestatu ahozko azalpen bat bigarren hezkuntzako arlo guztietan

BLITZ
Liburutegiko saga